

DOKUMENTU POLITIKOA

IX ASANBLADAN ONARTUA

Barakaldon, 2017ko urtarrilaren 28an



ezker anitza

EDUKIA

Estatu espainarreko testuingurua: periferiaren ekonomia eta gizarte eredia.....	3
Euskadiko testuingurua	10
Norantz goaz?	17
Alternatiba: nahi dugun Euskadi	18
Ekonomia eta gizarte eremua	18
Gizarte demokrazia eraikitzen. Berdintasuna eta bizitza duina	21
Hezkuntza	22
Gazteria	25
Osasuna	31
Feminismoa	32
Enplegua eta baterako ardura.....	33
Erantzukizun postuetako berdintasuna.....	34
Amatasun subrogatua	35
Indarkeria matxistaren kontra borrokatu	35
Sexu eta ugalketa eskubideak	37
Sexu dibertsitatea	37
Iraunkortasuna eta Ingurumena	38
Partaidetza eskubidea demokrazian sakontzeko eta askatasunen erregimena eguneratzeko bide.	42
Federalismoa eta errepublika. Euskal erakundearen arkitektura berri baterantz	43
Federalismoa eta errepublika	43
Euskal erakundearen arkitektura berri baterantz.	48
Bakea eta gizarte berradiskidetzea	50
Irabazteko bateratu	51

ESTATU ESPAINARREKO TESTUINGURUA: PERIFERIAREN EKONOMIA ETA GIZARTE EREDUA

2008ko ekonomia krisiak trantsizioaren kontsentsuetan hasitako ziklo baten amaiera ekarri zuen eta erregimenaren egiazko krisi bat eragin zuen. Europa demokraziarekin eta bizi-kalitatearen hobekuntzarekin eta monarkia egonkortasuna eta bakearekin lotzen dituen ideiatik eratorritako gizarte kontsentsu horiek apurtuta geratu ziren krisiaren zuzeneko eraginen (langabezia orokorra, erosahaltenaren galera gizarteko sektore askotan) eta alderdi biko egitura politikoen eta beren aliatu abertzaleen ustelkerian fokua jarri zuen erasoaldi mediatiko eta judizialaren ondorioz. Izan ere, ustelkeria osoa baliagarria izan baitzaio, azken hamarkadetan, hazkunde espekulatiboaren ereduari, eraikuntza arloari estuki lotua egon baita eta, halaber, ustelkeria ekonomia eta politika arloetako eliteek erabili duten hizkuntza komuna izan delako.

78ko erregimenaren beste ezaugarri bat da ingurumenarekiko agertu duen erabateko mespretxua, mugarik gabeko jatuntasuna agertuz gutxiengo baten mesederako. Kostaldean legea, urak batetik bestera eramateko politikak, urtegiak egiteko edo handitzeko proiektuak, eski estazioen garapena, ingurumen arloko betetzeari egon diren arau hauste ugariak, etab., naturak bizi duen espolioarekin bukatzea ahalbidetuko duen gizarte sistema berri baten behararen adibide argiak dira.

Hasiera batean, erregimen krisia austeritate politiken bidez konpontzen saiatu ziren, era guztietako gizarte eta demokrazia murrizketak eginaz. Baina, esan bezala, lege eta konstituzio markoak estuegiak ziren kapitalarentzat eta irabazien maila berreskuratzea galarazten zioten. Eta hori, azken hamarkadetan egon den errenta publikoen transferentziarik handiena egon bada ere. Finantza eta espekulazio krisiaren harira, ekonomia botereak merkataritza-formula berriak bilatu dituzte eta horien oinarria da bitarteko publikoak esku pribatuetan uztea. Aipatu estrategia austeritate politikan eta estrategia horrentzat oztopoa suposatzen zuten lege markoen aldaketan gauzatu da. Testuinguru horretan, klase menderatzaitako sektore esanguratsuenek (finantza sektorea barne) aldaketa politiko bat beharrezkoa eta saihestezina dela ikusi dute, non erabat zaharkitua eta ustela eta, ondorioz, beren interesetarako hutsala den erregimen batekin bukatuko den. Hori da bigarren trantsizio delako horren oinarria: sistemaren osagai nagusiak forma politiko berrien pean mantentzea. Aldaketa eragiketa hori monarkiaren berritzearekin hasi zen eta nahia da sistema barruko indarren arteko Estatu hitzarmen handi batekin osatzea.

Biztanle gehienek bizi-kalitatean izandako eragin negatiboak, politika krisi sakon batekin batera, zeinaren isla nagusia 78ko erregimenaren haustura izan den Estatu espainiarrean. Krisi faktore horien kointzidentziak, hain handia eta hedatua izanda, ziklo baten amaieran gaudela agerian utzi du, baita ohiko alderdi politikoei dagokienean ere. Alderdi politikoak, distortsioak gora behera, gizarte klase ezberdinetako interes materialen adierazpen antolatua dira. Gizartean egondako

aldaketa hain izan da sakona, baldintza objektiboak eta kontzientziak eraldatzen hain handiak pairatzen ari dira, non desfase bat eman den, ez bakarrik politika erakundeekiko, baizik eta baita alderdiekiko ere. Hauek, iraganeko adierazpena dira oraindik, gizarte ituneko aroak kudeatzen ohituta daude eta egungo gatazka larriak gizartearengandik isolatu ditu. Zehatzago esanda, gizarte klase ezberdinen ordezkaritza instrumentuak izateari utzi diotela frogatu dute. Ezkerraren, alderdi eraldatzaileen arazo bat zirudiena, erregimeneko alderdien arazoa bilakatu da ere.

Ez da horrelakorik bizi, orain arte, trantsizioko urte haietatik: PP traba bat da, bitarteko erabilgarri baino, Ibox 35aren interesetarako, burokrazia aparatu gisa dituen interesak bere gizarte klasearen interes orokorren gainetik jartzen baititu alderdiak. Gatazka hasi besterik ez da egin eta alderdi politiko guztietan eragingo du, orain arte alderdi-bitasunaren aliatu izan ohi diren eskuin abertzaleko alderdietan ere bai. Abagune aroa da, atsekabeko egoera baten aurrean gizarteak konponbideak bilatzeko nahia duela frogatu baitu. Ausardia politikoa behar-beharrezkoa da, oso gutxitan izan baitugu alderdi politikoak milaka pertsonen partaidetza aktiboarekin, inplikazioarekin berreraikitzeke aukera, herri langilearen beharrak aintzat hartuko duen ibilgua eraikitzeke.

Klaseen arteko borrokaren baitan, joko-arauen aldaketa hain izan da handia non klaseek berrarmatzeko beharra dutela esan genezakeen. Klase menderatzaileek, ezbairik gabe, ahal den guztia egiten ari dira (eta asko da) beren indarrak berrantolatzeke. Langileen indarrak berrantolatzen laguntzera behartuta gaude, gure erakundeen etorkizuna ez ezik langile guztien existentziaren baldintzen etorkizuna baitago kolokan.

Aldaketa horien ondorioz, denborak aurrera egin ahala, gure herriko ikuspegi politikoak eraldatze azkarra bizi izan du. Marko horren baitan, Abenduak 20ko Hauteskunde Orokorretako emaitzen kudeaketak erregimen krisiak fase berri bat bizi duela agerian utzi du: gobernagarritasun krisia, alegia. Krisi hori ez da gobernu berri bat eratuz bakarrik bukatuko, sistemak alderdi marko eta konstituzio marko berri bat behar baititu 2010etik egindako erreformak finkatu ahal izateke.

Aurrekoari lotuta, aro honetan alderdi politikoetako barne metodoak kolokan jarri dira, barne partaidetza eta demokrazia handiagoak eskatzen baitira egun. Primarioak militanteen zein aldekoen (erabaki eremuaren arabera) borondatea zuzenki jakiteko funtsezko erreminta bilakatu dira. Militanteei eginiko galdeketa, halaber, askoz ere ugariagoak dira egun iraganean baino, erabaki handiei dagokienean bereziki. Ildo horretatik, 2013. urtean IUk Demokrazia eta Gizarte Iraultza izeneko hausnarketa prozesu bat abiarazi zuen herri osoan. Asanblada honek aipatua erakundetu beharko luke.

Tamaina honetako aldaketa batek sistemaren nagusitasunarekin bukatu nahi duten gizarte elkarte guztiek partaidetza eta protagonismo aktiboa eskatzen du halaberrez. Aipatu partaidetza estrategikoa bilakatzen da, koitunturala edo taktikoa izan ordez eta, ondorioz, bere antolaketak eta bere proposamenak aintzat hartzeko gaitasunak gure esku-hartze politikoaren ardatza izan beharko luke. Gizarte partaidetza eta ekintza ahalbidetuko dituen erakunde bat eraiki behar dugu, neoliberalismoaren aurka dauden mugimendu guztiei lotua.

Alderdi sistemaren krisiak tamaina handiagoko krisi politiko bat adierazten du: erregimenaren krisia, zeinak erakunde guztien zilegitasuna kolokan uzten duen. Boto-emaeleek argi dugu mendebaldeko gure herrialdetako parlamentuak itzalezko antzoki hutsak bilakatu direla eta benetako agintariak enpresa handiak eta oligarkia direla. Azken horien boterea hain da handia non demokratikoki aukeratutako gobernuen iritzia aldatzen duten, lege barruan edo legetik kanpo zuzenean erosten ez dituztenean, nahi adina egin ahal izateko. Luzetik datorren fenomeno hori, kapitalismoaren propioa, azken urteotan bizitu egin da, eta biziki krisi ekonomikoen ostean.

Nolanahi ere, mendebaldeko demokrazia delakoek orain arte biztanleen babes handia izan badute, ez da beren izaera demokratikoagatik izan, beren emaitzen ondorioa baizik. Jende asko alboan uztea suposatu badu ere, ikuspegia lur osora zabaltzen badugu gehienbat, hamarkadetan zehar sistema honek emaitza nahikoak ekarri dizkio mendebaldeko herrialdetako gizarte gehiengo bati. Alde izugarriekin, esan beharrik ez dago, aberastasunaren banaketan, baina sistemaren inguruko kontsentsua mantentzea ahalbidetzen zuten gutxieneko emaitzekin bederen. Kontsentsu hori apurtzen hasia dela dirudi, halere, banaketaren emaitzak ez baitira berdinak eta, ondorioz, gure babes osoa zuten erakundeak kolokan baitaude orain, bai eta sakonki aztertutako ere. Susmatzen bagenuen ere, geneukan bizi-kalitate nahiko horren ondorioz toleratzen genuen lapurreta orokor baten existentziaren inguruko kontzientzia suspertu egin da. Laburbilduz, urte guzti horietan zehar hesituta mantendu gaituzten gizarte eta kultura kontsentsuak apurtzen hasiak dira.

Berdintasunetik oso urruti dagoen feminitate-kontzeptu batean emakumeak estutzen dituen gizarte batean bizi gara; horretarako, emakumeei zuzenduriko programa sexista eta hutsalak erabiltzen dituzte komunikabideek. Eta guzti hori ez da kasualitatea, emakumea gizarteko bigarren maila batean eta sistema patriarkala sendotzea ahalbidetzen duten sexuen rola eta estereotipoak betikotzea baita helburua.

Sistema kapitalistaren nagusitasunaren oinarrietako bat patriarkatua da: emakumea gizarteko bigarren maila batean kokatu eta aberastasunaren, ekoizpen-lanaren eta erreproduzio-rolen banaketa desorekatua planteatzen duten ideologia balore eta estereotipo batzuk. Handitzen doan soldaten arteko haustura, prostituzioa emakume txiroentzako lan-aukera gisa arautzea, elizaren tolerantzia misoginoa, botere publikoek emakumeen aurkako indarkeriarekin bukatzeko azaltzen duten inplikazio eskasa dira, besteak beste, kapitalak gizarte gehiengo menderatzeko aplikatzen duen eskemaren osagaietako batzuk. Horrenbestez, ez dago ez justizia ez demokraziarik emakume askerik gabe eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatu gabe ekonomia, politika, gizarte eta kultura arloetako eskubideei dagokienean. Feminista, bukatzeke dagoen iraultza da eta bere aldeko konpromisoa hartzen dugu, patriarkatuarekin bukatu eta gizarte berri baten proiektua eraiki ahal izateko.

Sistema patriarkal horren aurrean, borroka feminista emakumeen zein LGTBIQ taldearen zapalketarekin bukatzeko era bakarra dela uste dugu. Borroka hori gure ekintza politikoa egituratuko duen ardatzetako bat izango da, barne mailan (erakundean instalatuta dauden genero-rolak eta jarrera heteropatriarkalekin bukatuz) zein kanpoan, borroka feminista eta transfeministako emakume eta

taldeekin lan eginaz, eta zapalketarik gabeko harreman-forma eta sororitate-harreman estuak sortuko dituen mugimendu feminista bateratu eta borrokatu bat eraikitzeke.

Kultura aldaketa nabaria eman da, gazteenen artean bereziki. Metatze posfordisteko erregimenaren ezaugarriak diren lan- eta antolaketa-formetan txertatuagoak beren helduak baino, politika pentsatzeko beren moduak oso ezberdinak dira eta beren hauteskunde jarrera askoz ere aldakorragoa da. Trantsizioko kulturaren ezaugarriak erraz barneratzen ez dituzten belaunaldiak dira, gainera, aipatuak ez dituztelako bizi izan eta askoz errazago egiten dute bat demokrazia bilatzen duten gizarte mugimenduekin eta beren aldarrikapenekin. Ekonomia, gizarte eta demokrazia krisiaren ondorioz, halaber, frustrazio handiagoa sentitzen dute beren lan-arloko eta bizitzako itzaropenei dagokienean. Eta, aldi berean, goi-mailako ikasketarik ez duten gazte asko daude eta krisia bereziki latza izan da aipatuentzat. Horiek dira iraupen luzeko langabezia, gizarte-bazterketa pairatzeko eta lan-arloko eta bizitzarako itzaropen eskasak dituzten pertsonak hain zuzen ere. Politikarekiko gaitzuste handiagoa agertzen duen gazteak dira eta alderdi eraldatzaileek ez diete arreta gehiegirik eskaintzen, ideologizatuagoak edo prestatuagoak dauden gazteetan jartzen baitute bere arreta. Arlo horretako beharrak asetzea eta bere barruan politika lana egitea IUk eta alderdi eraldatzaile guztiak egiteke duten lan bat da.

Sistema kapitalistak dituen ahulezietako bat da ingurumenari dagokionean agertzen dituen kontraesanak; kapitalismoak ingurunea suntsitu beharra dauka hazi ahal izateko eta hazi eta hazi baino ezin du egin, bere funtsezko ezaugarrietako bat baita aipatua. Eta gainera, ulertezina litzateke gizarte mailan arauturik ez dagoen eta ingurumena arautua duen gizarte bat; izan ere, mundu osoko kontserbadoreek aplikatu dituzten lehen neurrietako bat izan da bere garaian sozialdemokraziak eta gizarte presioak sustatu zuten ingurumen mailako legedia bertan behera uztea.

Esan beharra dago ingurumena ez arautzeak klase txiroenen kontrako eraso larri bat dela. Kasu honetako aldea da bere ondorio latzenak epe luzera ikusiko direla baina eragin handia izango dute biztanleen bizi-kalitatean, ondokoak ekarriko baitituzte: lehengaien garestitzea, gosete oso larriak, migrazio masiboak eta gaixotasun berrien garapena, gure espezieak bizirik irauteko dituen aukerak murriztuz.

Ingurumena defendatzeak ekoizpen eta gizarte harremanen eredua errotik aldatzea eskatzen du eta, ondorioz, gizarte eredu antikapitalista bat ezartzea dakar; hau da, ingurumen arloko iraultza ezkerrek egiazki gauzatu beharra daukan beste iraultza bat da. Ez da nahikoa ingurumenaren defentsari egiten zaizkion keinu formalekin eta ekitaldi praktiko xume eta kontrajarri horiekin; borroka ekologikoa eredu kapitalistaren aurkako borrokaren beste aldetzat hartu eta eredu berri baten garapena bultzatu beharra dago.

Zirku politikoa eta bere kodeak aldatu dira, politika ikuskizun bilakatzeko prozesua eta mediatikoak iritzi politikoa eratzekoan duen nagusitasuna dela eta gehienbat. Geroz eta nabariagoa da kapitalismoa herritarron partaidetza publikoarekin bateraezina dela. Ikusle-kopuru goreneko orduetako programak eta politikaren inguruko telebista solasaldiak funtsezko borrokagunea bilakatu dira egungo

politika eztabaida gauzatzeko, horrek dakarren ondorio guztiekin. Alde batetik, politika agenda komunikabide pribatu handien (ekonomia eta politika interes propioak dituztenak, dudarik gabe) mende geratu da. Bestetik, entzuleen diktadura eta politikaren osagai sentsazionalista gailendu dira eta, honela, politika mezua asko sinplifikatu da eta komunikatzeko gaitasunean eta alderdi estetikoaren menderatzean oinarrituriko hiperlidergoak eraiki dira.

Nolanahi ere, eta alderdien sistema barrutik eta kanpotik -eta maila ezberdinetan- aldatua izan bada ere, berrezartzearen eta hausturaren arteko zalantzak lehenerantz jotzeko joera agertzen du erakunde krisiko larriko une hauetan. Gizarte polarizazioko prozesu bizi bat bizitzen ari gara, baina funtsezko osagai batekin: klase menderatzailea azkar eta aise egokitu bada ere krisira eta bere klasearen interesak babesteko politika zorrotzak aplikatu baditu ere, ezkerreko alderdiak zorabiatuta jarraitzen dute itzuliko ez den "ongizate estatuko" eta gizarte ituneko aroaren eta kapitalismoaren aurreko gizarte-eredu global eta alternatibo baten ezaren artean. Prozesu objektiboak, baina, eustera garamatza hasiera batean eta, ondoren, eraso egitera galdutako eskubideak berreskuratu, borroka egin eta alternatiba eraldatzaile bat aurkezteko.

Azken urteotan, ordea, gizarte mobilizazioek nabarmenki egin dute behera. Horren arrazoiak aplikatu dituen zapalkuntza neurriak izan daitezke, nekea edo gizarte mugimendu gehienen deskapitalizazioa baina, dena dela, kaleak hutsik geratu dira, aldarriak egiteko arrazoiak inoiz bain ugariagoak direnean.

Prozesu natural bat eman da ere, non gizartea eraldatzeko esfortzuek jokalekuz aldatu duten. 2014 dignitatearen ibilaldietan gailurra jo zuten borroka bikain ugari izan eta gero, eraldatzea erakunde arloan lortzeko itxaropen handi bat etorri zen, hauteskundeak irabazteko esperantzarekin alegia. Masa psikologiaren eraldaketak esperientziaren bidez ematen dira funtsean eta, orain, ahalegin guztiek parlamentu eta udal arloetan jarri dute beren arreta, arduradun gehienek erakunde arloaren aukerak puztu baitituzte. Erakundeak status quoa, dagoen gizarte ordena mantentzeko sortuak izan dira eta aipatu ondorioa klase langile gehienen artean ikusgarri egin beharra dago, mobilizaziorantz eta partaidetza kontzienterantz bultzatuz ahal den neurrian.

Azterketa horren arabera, jokaleku horretan kokatu behar gara eta gobernagarritasun krisi honen baitan erregimenaren kontraesanak azkartzeko aukera irekitzen dela ulertu behar dugu. Kontraesan horiei esker, haustura ekarriko duen aldaketa-aukera bat eraikitze beharrezkoa den mobilizazioa sor genezake. Horretarako, erakundearen hedatzea aktibatu beharra dago. Gure erakundeak, erregimen krisi honekin amaitu eta klase langileen onura bermatuko duen proiektu hausle baten defentsa argian jarri beharko du bere arreta.

Estatu espainiarra 2007-08ko nazioarteko finantza krisiaren ondorioz sorturiko ekonomia krisi larri horretan murgilduta dago. Finantza krisia icebergaren tontorra baino ez da, hazkunde osasuntsurik izan ez dezakeen nazioarteko ekonomia sistema baten dekadentziaren tontorra alegia. Krisiaren errotiko arrazoiak gainproduktio kapitalistaren krisia da, finantza burbuilaren eztandaekin agerian gelditu dena.

Izaera neoliberalerako metatze erregimen kapitalista honek pixkanaka-pixkanaka ordezkatuz joan da, 70ko eta 80 hamarkadetatik, metatze erregimen fordista, Bigarren Mundu Gerratik mendebaldeko ekonomian aplikatu zen sistema alegia. Fenomeno horren ondorioak izugarriak dira eta ezinezkoa da gure gizartetako egungo kartografia metatze erregimen horien arteko trantsizioarekin batera eman diren aldaketak aintzat hartu gabe ulertzea.

Izan ere, eraldaketa horiek mendebaldeko herrialdetako klase egitura aldatu dute, baita Espainian ere. Zerbitzuak kanpora ateratzeko sistemetan eta informazio eta komunikazio teknologia berrien erabilera oinarritutako ekoizpen-forma berriak ezarri dira; lan-arloko harremanak malgutu egin dira; ekonomietako desindustrializazio orokorra eman da eta langile merkeagoak dituzten herrialdeen aldeko deslokalizazioak eman dira ere; azkenik, soldata lehia askoz ere latzagoa dago, beti ere beherantz. Laburbilduz, lan malgua, gaizki ordaindua eta prekarioa orokortu da, lan-zuzenbideari dagokionean ezarritako araudi berri eta indarreen ondorioz ere. Aldi berean, Estatu espainiarrean hezitutako langile kualifikatu askoren emigrazioa sustatu da, Ekonomian nagusi diren herrialdeetarantz: Alemania, Frantzia edo Erresuma Batua, gehienbat.

Nolanahi ere, neoliberalismoa, ekonomia eta ideologia proiektu gisa, egungo krisia azken hamarkadetan nagusi izan diren politiken bidez konpontzen saiatzen ari da. Doikuntza plan edo egiturazko erreforma delakoek erakunde antolaketa berri bat bilatzen dute, kapitalaren itxaropenak are gehiago hobetu ahal izateko. Merkatuen desarauketa, lan-arloko esplotazioaren hazkundera eta pribatizazioak zenbait Estatutan zutik dirauten gizarte mekanismoekin bukatzeko ahaleginaren zati dira ere.

Europa osoko gobernuek (sozialdemokrata zein liberal) orokorki aplikatu dituzten neurri horien ondorioz, langileen bizi-baldintza materialak asko kaskartu dira. Langabeziari, etxebizitza bat eskuratzeari, prekaritateari, funtsezko pribatizazioei, berdintasun ezari eta txirotasun orokorrari dagokienean, gure herrialdearen egoerak okerrera egiten du urtetik urtera. Geroz eta gizarte arlo gehiagotan eragiten duen gizarte larrialdiko egoera batean bizi gara.

Horrek ematen duen argazkia ondokoa da: ongialdi makroekonomikoa eta ageriko ezinegon mikroekonomikoa, politika neoliberalerako desoreka maila handiak sustatzen baitituzte. Indize makroekonomikoen eta biztanleriaren ongizatearen arteko haustura handitzen duen ekonomia eta gizarte eredu baterantz goaz. Bizi-baldintza materialek, Europako muturretan eta gizarte talde ahulenetan bereziki, oligarkien mozkinak gora egiteko agertzen duten erritmo berdinean egiten dute behera. Klaseen arteko borroka ekoizpen-bitartekoetako jabeek bereganatzen duten zatiaren eta soldata eta gizarte inbertsioari zuzenduriko zatiaren arteko etengabeko tentsioa baita. Eta borroka horrek atzera egin du, iraultzen mehatxuek atzera egin du eta, ondorioz, kapitalaren errenten aldeko esplotazio maila gora doa, lanaren errenten kalterako. Prozesu horrek, ordea, sistema kapitalistaren dinamikak propioak dituen kontraesanak areagotzen ditu.

Izan ere, ekonomia hazkundera eusteko, neoliberalismoak finantza burbuilak elikatzen jarraitzen du, ekonomia krisi berriak eta latzagoak ekarriz berekin. Azken urteotan, bankuak erreskatatzeko planekin batera, Europako Banku Zentralak laguntza itzelak eman die bankuei eta finantza merkatuak diruz bete ditu.

Etorkizunean, ondorioz, beste finantza krisi bat etorriko da, geroz eta ahulagoak diren ekonomien eta gizarte egoeren gainean eroriko dena.

Testuingurua nazioartera zabaldu beharra dago, muturreko eskuinak gora egin baitu Europa osoan, ekonomia krisiak eta errefuxiatuen krisiak elikatuta. Ideologia xenofoboa gora doa ere eta politika sektore "moderatuetara" ere iritsi da (Merkel beraren alderdiak etorkinen kuotak berraztertzea inposatu zuen Alemanian); muturreko eskuinak, gainera, ezkerrenak izan beharko liratekeen borroka bere egin ditu: TTIPa bezalako tratatuen aurka borrokatzea, pairatzen dugun EB ereduaren salaketa, "Establishment"-aren aurka egitea, etab. Eta ezkerren espazioa izan beharko litzatekeen horretaz elikatzen da batez ere: alderdi horietan atsekabearen botoa bilatzen duten langileak.

2016. urtean, gainera, orain arte defendatu izan den Europar Batasunaren porrota eman zen, EB-Turkia akordioarekin eta Brexitarekin gehienbat.

Estatu espainiarraren markoan, eta borroka oraindik irekia badago ere, oligarkia berrezartzeko prozesu bat abian dago. Konstituzioak gizartean dagoen indar korrelazioaren emaitza dira beti, emaitza distortsionatua bada ere eta 1978koa, bere akats guztiakin, langileen mugimenduaren erasoaldiaren eta klase menderatzailearen krisi sakon baten ondorioa izan zen. Egun, erreakzio mugimendu bat bizitzen ari gara legeei dagokienean, azken fasean areagotu egin dena gainera. Bere xedea da lege arauak zorroztea, krisiaren aurkako gizarte protesta amatatzen saiatuz.

Gure politika eta zuzenbide erakundeak krisian dagoen kapitalismora egokitzea bilatzen duten erreforma ezberdinak hastea lortu du oligarkiak. Lege antiterroristaren erabilera bereizi gabea nabarmendu beharra dago, bai eta zigor arloko erreformak ere (Mozal Legea delakoa batez ere), erreformen aurkako edo erregimen neoliberalaren funtzionamenduaren aurkako protestak galarazteko. Egindako egiturazko erreforma guztien xedea da metatze erregimen neoliberalaren sendotzea eta prekaritatean eta soldaten etengabeko doikuntzan oinarritutako gizarte ordena berri baten ezarpena erraztea. Zentzu horretan, prozesu horren lehen biktima lan-zuzenbidea izan da, oztoporik nagusia bilakatu baita kapitalaren errealizazioa bermatzeko ekonomia eta gizarte baldintza berrietan. Logika horren baitan, alderdi-bitasunaren gobernuek soldata osagaia are gehiago malgutzen duten lan-arloko erreforma gogorrak onartu dituzte.

Horri, munduko ekonomian dugun presentzia mota gehitu behar zaio. Estatu espainiarreko ekonomiak bere azken hazkundera jasanezina zen zorpetze eredu batean oinarritu du. Honek, merkataritza defizit itzelak zekarren, beste desoreken artean. Oligarkiaren xedea da soldata baxuetan oinarritutako eredu bat ezartzea, non esportazio garbiak ekonomia hazkunderaren motorra izango diren. Hori bai, Espainiako ekoizpen egitura ezagututa, aukera bakarra da balio erantsi baxuko sektoretan lehiatzea eta, ondorioz, lan-arloko prekaritate handiarekin.

Honela, kapital-lana gatazka azken urteotan areagotu da, espero zitekeen isla izan ez badu ere gizarte mailan. Ez bakarrik lanik ez duten pertsonen esponentzialki gora egin dutelako, baizik eta soldatek errentan duten partaidetzak zorrozki egin dutelako behera ere azken hamarkadetan. Aldi berean, soldata baxuak altuak baino askoz ere gehiago murriztu dira. Honela, soldatapekoen arteko desoreka areagotu

da. Enpresan ematen den denbora ere murriztu egin da, krisia aurretik genuen lan-merkatua baino dualagoa den beste bat sorraraziz.

Kapital-lana gatazka ez da langileen bizi-baldintzak kaskartu dituen bakarra, baina. Patriarkatuaren ondorioz, emakumeek matxismoaren eta bere indarkeriaren biktimak izaten jarraitzen dute. Gizonen eskutik egindako emakumeen hilketek ez dute erantzun aproposik jaso, orain arte, administrazio publikoen aldetik. Emakumeen eta gizonen soldaten arteko aldea eta ezberdintasun eza, kristalezko sabaiak delakoak barne, konpontzeke daude oraindik. Eta jazarpena edo mikromatxismoak bezalako beste zenbait indarkeria matxista erabat sartuta daude gure egunerokotasunean, erdeinatu beharreko sen on baten baitan.

Era berean, ingurumenaren degradazioa areagotu egin da ere, nazioarteko lehiakortasun handiagoaren eta energia fosilen kontsumoaren bidez lortzen den material mugatuen eraldaketan oinarritutako produktu ekoizpen masiboaren ondorioz. Klima aldaketak aurrera egiten du, ekonomia kapitalista aplikatzen duten herrialdetako gobernu gehienak beste leku batera begira dauden bitartean. Hain da handia mehatxu ekologikoa, ezen ezinezkoa den ekologia barne hartuko ez duen proiektu politikorik aurreikustea.

Geroz eta ageriagoa da ezin dela Kapitalismoa gehiengo sozialaren onurarako aldatzea. Horrenbestez, XXI. mendeko sozialismoa eraikitzeko gure nahia berretsi nahi dugu. Gure herrialdearen mesederako ekonomia alternatiba guztiak ondoko oinarriak izan beharko lituzkete: ekoizpen egitura dibertsifikatzea, lan denbora birbanatzea eta soldatak autozentratua egongo den eskaera baten funtsezko motorra bihurtzea. Horretarako, errenta eta inbertsio publikoa birbanatzeko politikak aplikatu beharko lirateke. Hauek, halere, Europar Batasunaren oztupoarekin egingo dute topo, Europako Banku Zentralaren paperari, erakunde arkitekturari, azken tratatuei eta austeritatearen aldeko itunei esker bereziki.

EUSKADIKO TESTUINGURUA

Krisiak bilakaera ezberdina izan du Euskadin, beranduago eta ez hain bizia, Estatuarekin alderatuta, industria delako euskal ekonomian pisurik handiena duen sektorea, eraikuntzaren ordez. Horri esker, krisiaren eraginak txikiagoak eta motelagoak izan dira eta langabezia tasa EBren batezbestekoaren parekoa izan da, Estatukoaren erdia. Euskal industriak, halere, Alemania, Frantzia edo Italia bezalako herrialdetara bidaltzen du bere ekoizpena eta ekonomia horien turbulentsiak ikusita, epe motzeko aurreikuspenak ezin esan onak direnik.

Euskal langileen egoerak baditu bere berezitasunak, lan-arloko erreformez gain, eta berezitasun horiek euskal patronalaren eta sindikatuen zatiketaren ondorioa da.

Lan Harremanen Euskal Kontseiluko datuen arabera, 2016ko hasieran euskal langileen % 21a baino, hau da, 115.617 pertsona baino ez zeuden berritutako hitzarmen baten babesean.

Beren hitzarmena luzatua eta berritzeke zuten langileen kopurua 326.679 pertsonakoa zen, % 59,5a, gehiengo zabala. 107.040 pertsonak, % 19,5ak,

hitzarmena bertan behera zuten eta, ondorioz, hitzarmen zehatz baten babesean ez zeudenez lan-arloko legedi orokorra aplikatzen zitzaien.

Gure enpresa-ehunaren egitura ikusita (ETEak dira nagusi), ezinezkoa da beren sektoreko hitzarmena bertan behera duten langile guztiak enpresa-hitzarmenak sinatzearen bidez babestea.

Horrenbestez, negoziazio kolektiboaren estaldura maila oso baxua da: negoziazioa blokeo egoera nabarian dago. Horri, 2015en EAEn 27 hitzarmen kolektibo aplikatu ez zirela edo lan-arloko gatazkek behera egin zutela gehitu behar zaio. Ondorioz, esan daitekeena da euskal langileek hitzarmenetan jasotako beren eskubideak galtzen ari direla pixkanaka-pixkanaka eta ez dagoela hauek berreskuratzea ahalbidetuko duen mugimendurik. Orduan, euskal egoerak kaskartze erlatibo bat paira zezakeen Espainiako egoerarekiko:

- EAEn indarrean dauden hitzarmenetan adosturiko batezbesteko soldata igoera % 0,62koa izan zen 2015en, Estatu mailan sinaturiko hitzarmenetan adostutako batezbestekoaren azpitik, azken hori % 0,74koa izan baitzen.
- Lan-kostuen eta Kontsumoko Prezioen Indizearen estatistika aintzat hartuta, euskal soldatek % 6,76 egin dute gora krisia hasi zenetik eta inflazioak, aldiz, % 10,2an egin du gora. Estatuko KPI, bere aldetik, % 8,9a igo da; soldaten igoera % 6,58koa izan denean. Euskadin egon zen aldea % 3,5koa izan zen, Espainiako % 2,3aren aurrean.

Estatuaren kasuan bezalaxe, gainera, egoerak eragin handiagoa izan du emakume eta gaztetan, prekarizazioaren, behin-behinekotasunaren edo lanaldi partzialeko lanaren ondorioz:

2015en, gizonak dira oraindik lanaldi osoko kontratuak jasotzen dituztenak (kontratazio mota horren % 60,8a), kontratuak aldi baterako edo mugagabeak izanda, lanaldi partzialeko kontratu gehien sinatu dituztenak emakumeak diren bitartean (kontratazio mota horren % 66,5a).

2015en jakinarazitako behin-behineko kontratuen batezbesteko iraupena 2014n izandakoaren oso berdina izan zen. Horietako % 49,2ak hil bateko edo gutxiagoko iraupena izan zuen.

Sindikatuaren arteko zatiketa, patronalaren jarrera, enpresa negoziazioaren aldeko apustuak, langabe izateko beldurra eta lan-arloko lege markoa dira egoera horren erantzule nagusiak eta langileen interesak defendatzen dituen alderdi politiko ororen kezka nagusia euskal langileek galdutako eskubideak eta erosahalmena berreskuratzeak izan behar du.

Halaber, nabarmentzekoa da ere Euskadin desindustrializazio prozesu motel bat bizitzen ari garela: 80ko eta 90ko hamarkadetan euskal lantegi garrantzitsuenetan atzerriko kapitala sartu ondoren eta erakunde publikoek horien akzioduneriatik pixkanaka desagertu eta gero, deslokalizazio ugari egin baitira, Sestao eta Zumarragako Arcelor-Mittalen kasua esaterako.

Horrez gain, Euskaltel bezalako enpresen pribatizazioa eman da. Enpresa horiek diru publikoko inbertsio itzelekin sortu eta gero, inbertsio fondo pribatuen

eskuetan bukatu dute eta horiek mozkin izugarri handiak lortu dituzte konpainia burtsara sartzera.

Hiru euskal aurrezki kutxa publikoak Kutxabanken bidez banku bihurtu izanak agerian uzten du Euskadi ez dela irla isolatu bat. EAJk, PSE-EEk eta PPk ez dute inolako arazorik izan akordioa lortu eta euskal aurrezki kutxak desegin eta banku bat sortzeko. Bankuaren kapitala, egun, kutxetako fundazioen esku badago ere, esku pribatutan amaitu dezake burtsara ateraz gero, oso litekeena dena gainera.

Aurrezki kutxak banku bilakatzearen ondorioz fundazioak sortzea beharrezkoa suertatuenez beren gizarte ekintza kudeatu ahal izateko, abaguneaz baliatu eta fundazioen zein Kutxabanken gaineko demokrazia eta gizarte kontrol publiko guztia desagerrarazi egin dute. Eta EAJk, honela, guztien gaineko ia erabateko kontrola mantentzea lortu du. Salatzekoa da ere aurrezki kutxetako fundazioetako patronatuen kideak berritzeko modua ere (kooptazioa); hau da, patronatuko kideak dira patronatua zeintzuk osatuko duten erabakitzen dutenak.

Industria eta enpresa handiek pisu erlatiboa galdu dutenez eta ekonomiak hirugarren sektorerantz jo duenez, ondasunen ekoizpenak behera egin eta zerbitzuen eskaintzak gora egin du pixkanaka, tamaina txikiko eta lan baldintza oso kaskarreko enpresen bidez.

Azken horren adierazle izan da Movistarreko langileen aste luzez mantendu duten greba, lan baldintza duinak defendatuz.

Ondorioz, EAJtik gertu daudenek eta sistemako hedabideek sinestarazi nahi diguten horren aurka, Euskadi ez da lur honetako paradisia eta euskal gizarteak Estatuko beste gizarte guztiek dituzten arazo berberak pairatzen ditu, euskal ekonomiaren izaera periferikoaren ondorioz. Honela, adierazle ezberdinek agerian utzi dutenez, langabezia eta lan merkatuaren prekarizazioa euskal herritarren kezka nagusienetakoak dira; eta ez da gutxiagorako ere. Euskadiko langabeak ez dira 154.000 pertsonatik jaisten eta krisiaren une latzenetan (2012n) 169.000 pertsonatik gora egon ziren lanik gabe. Errealitate horren ondorioz, DSBEk, gizarte bazterkeria saihesteko azken elkartasun sareak, hartzaile kopuru handienera iritsi zen 2015eko maiatzean: 66.200 hartzaile.

Euskadin bizi garenon bigarren kezkarik nagusiena zerbitzu publikoetan egondako murrizketak dira, Patxi Lopezen zein Urkulluren Eusko Jaurlaritzek uneoro ezkutatu nahi izan duten datua. Neoliberalismoak Euskadin dituen guruek sentitzen omen duten eta lau haizetara zabaldu duten ekonomia berreskuratzearen aurrean esan beharra dago Eusko Jaurlaritzak ez duela 2011ko gastu publikoaren maila berreskuratu eta 2016ko aurrekontu hauek saldo negatiboa agertzen dutela krisiaren hastapenekiko: Euskadik 258 milioi inguru gutxiago ditu bere aurrekontuan eta horrek murrizketak dakartza ezinbestean; murrizketen gailurra 2013n jo zen. Zenbakiak agerian uzten dutenez, egun murrizketak daude oraindik zerbitzu publiko nagusietan. Ezkutututako murrizketa horien adibide gisa, ikusi besterik ez dago hezkuntzan sorturiko egoera eta horrek irakaskuntzan izan duen eragin negatiboa, barne ebaluazioek eta PISA txostenak mahai gainean jarri dituztenak.

Etxebizitza bat eskuratzeko eskubidearen ukatzea beste arazo larrietako bat da euskal biztanleentzat. Euskadi paradoxa handi batean murgilduta bizi da: hutsik

dauden 91.000 etxebizitza daude eta bien bitartean, 2014ko uztailan Etxebidek 80.000 pertsona inguru zituen erregistratuta etxebizitza bila. Aldi berean, 721 hipoteka exekuzio gauzatu ziren 2014n. 2015en kopuru horrek gora egin du eta 2,4 exekuzio egon dira eguneko (1,97 2014n), Lakuako Jaurlearitzak Eusko Legebiltzarrean azaldu duen bezalaxe. Klase baxuenek pairatu dute krisiaren eraginik latzena, gizarte egoera ahulean daudenek bereziki. Izaera materialeko pribazioez ari gara batez ere: etxebizitza bat lortzea, ura edo argia bezalako oinarrizko hornidurak eta baita elikadura ere.

Asko dira etxebizitza bat lortu ezin dutenak Estatuko etxebizitza parke garestienetako bat duen gure Erkidegoan eta Legebiltzarrak etxebizitza eskubide subjektiboa izendatu duen Etxebizitza Lege bat onartu badu ere, eskuinak era guztietako oztopoak jarri ditu aipatua legea gara ez dadin Euskadin.

Testuinguru global horren ondorioz, halaber, Euskadi migratzaileak bidaltzen hasi da berriz ere. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak emandako datuen arabera, ia 20.000 gazte euskaldunek gure herria utzi behar izan dute lanpostu baten eta etorkizun baten bila, beren herriak, auzoak eta gertukoak atzean utziz.

Emakumeak dira egungo lan egoera honetan gehien sufritzen dutenak; lan-arloko berdintasun eza munduan eta gure herrian desagerrarazten geroz eta zailagoa den errealitate bat da, administrazio ezberdinen ekimen faltagatik bereziki. Ondokoak dira bereizkeria horren ondorioak: emakumeek kontratu prekarioak lortzen dituzte, langabezia-prestazioetan ezberdintasunak, jazarpena lanpostuan, erantzukizuneko postuak lortzeko berdintasun eza enpresen barruan, soldata txikiagoak eta langabezia-maila handiagoa emakumeen artean. Guzti horren ondorioz, emakumeak geroz eta txiroagoak dira eta ekonomia krisiak egoera hori larritu besterik ez du egin.

Eredu hetero-patriarkalik eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko herrialdea izatetik oso urrun dago Euskadi. Matxismo normalduak ohikoak dira oraindik eta kristalezko sabaiak eta emakumeen presentzia eskasa nagusi dira oraindik eremu publikoetan.

Administrazio ezberdinei presio eginaz eta berdintasunaren alde heziz, emakumeen eta gizonen bidezko tratamendu baten gertuago egongo gara eta lan-arloko eta pertsonaren beste arlo ezberdinetako generoen arteko ezberdintasunaren aurkako borroka jarrerak eta iritziak aldatuz eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren balioak gizartean zehar eta, bereziki, gazteen artean hedatuz hasten da.

Euskadiko politika egoera ondokoek zizelkatuta dago: Batzar Nagusietarako eta udaletarako 2015eko maiatzean egindako hauteskundeak, 2016ko ekainean eta abenduan eginiko Hauteskunde Orokorrak eta iragan irailaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak, zenbait aldaketa garrantzitsu suposatu baitituzte euskal politikaren mapan.

Batzar Nagusietarako eta Udaletarako hauteskundeek EAJ eta bere kudeaketa erdua aldaketa soziopolitikoaren aurrean tinko mantendu direla frogatu dute. Alderdi jeltzaleak emaitzarik hoberenak lortu ditu erakunde ikuspuntuari dagokionean, hiru foru aldundiak, hiru hiriburuak eta hiri handienak lortu baititu, Barakaldo bezalako PSE-EEren feudo historikoetan irabaziz ere.

Udal eta Foru Aldundiak EAJrentzat arrakastatsuak izan baziren ere, 2015eko Hauteskunde Orokorrek aldaketa handia ekarri zuten. Euzko jeltzaleak Euskadiko lehen indarra izateari utzi zioten boto kopuruari dagokionean, nahiz eta eserleku berdinak mantendu Bizkaian izandako garaipenari esker. Ahal Dugu – Podemosek Gipuzkoan eta Araban irabazi eta Bizkaian bigarren izan zen eta ezusteko handia eman zion EAJri. Azken hauek, halere, jakitun dira udal eta legebiltzar hauteskundetan emaitza hobekoak lortu ohi dituztela, historikoki, orokorretan baino. Dena dela, eta berezkoak dituen anbiguotasunari eta oportunitateari esker, onura handiak lortzen ditu beti Estatu mailan, aliantzak eginaz alderdi-bitasuna sostengatzen duten alderdi nazionalekin zein ezker abertzalearekin.

Eta gainera, udalak eta lurralde historikoak kudeatzeko PSE-EErekin sinatu duen itunari esker, egonkortasun hautsiezina bermatu du.

Eta dirudienez, ustelkeria kasuak ez diote fakturarik pasatzen EAJri, nahiz eta eskandalo ezberdinetan murgilduta egon gaur egun: Epsilon Euskadi, "De Miguel" kasua, Karrantzako Minda edo berriena den Marce Elorza Zierbenako alkate ohiaren kanporatzea foru aholkulari gisa, delitu sozietarioa egiteagatik, prebarikazioagatik eta fondo publikoak bidegabe erabiltzeagatik inputatua baitago.

Ahal Dugu - Podemos izan da hauteskunde mapan indar handiarekin sartu den alderdia, emaitza garrantzitsuak lortuz udal eta foru hauteskundetan, nahiz eta beren siglak ez erabili aipatuetan, eta lehen indarra izatea lortuz aurreko hauteskunde orokorretan. Horrek esan nahi du alderdi garrantzitsua direla dagoeneko Euskadin, eta ez haizeak eramango duen fenomeno bat.

Ahal dugu – Podemos Izquierda Unidaren ezaugarri izan den ideologia eta klase tradizioetik zatiren batean aldentzen diren diskurtso-osagaiak erabiltzen dituen indar heterogeneoa da. Eta horren ondorioz, Ahal dugu - Podemos klase interesen inguruan kontraesan nabaritan erortzen den indarra da; baina, halaber, klase ertainak nagusitzen direnez bere baitan, funtsezko indarra izango da pairatzen dugun eta epe motz eta ertainera aurrean izango dugun gobernagarritasun krisi eta balizko eredu aldaketarako zikloaren barruan sektore ertain horiek adostuko dituzten aliantzak eratzerakoan. Izan ere, Ahal dugu - Podemos berreskuratzearen alde egin dezakeen indarra baita, Erreforma eta Bigarren Trantsizioko eredu baten alde eginaz eta, honela, Estatu espainiarreko ohiko oligarkia menderatzaileen erreproduzio-ardatz nagusiak ukitu gabe utziz. Baina aldi berean, berezkoa duen izaera kontrajarriaren ondorioz eta muturreko ezkerren baitan jaio zenez, demokrazia hausteko prozesu bateratu baten alde egin lezake ere. Bere baitako kontraesana ebazteke dago oraindik.

Aurreko azterketa, orokorrean, iragan irailaren 25eko legebiltzar hauteskundetako emaitzekin berretsia geratu da. Garaipen jeltzalearen gakoa jende ugari erraz asko barneratu duen eta Euskadiko eta Estatuko eragile gehiegik (eta ezkerrekoak, askotan) denbora luzez bere horretan, eraso gabe utzi duten tesi faltsu bat izan da: Euskadin gauzak hobeto egin dira, hobeto bizi gara. Euskadin gauzak ondo egin dira.

Idea faltsu horren ondorioz, biztanle askok EAJ eta kudeaketa ona kontzeptuak batu egin dituzte, hori zergatik den eta kudeaketa onak berak zer esan nahi duen oso ondo jakin gabe. Aurreko diskurtso horrek beste Euskadi hori ezkututzen du:

prekariatatearena, etxegabetzeena, ahaztutako auzoena, doan sarturiko ordu estrena, kontraturik ez duten langileena, enpresa gehiegikeriena, etab. Euskadi hori, ondoko mezu kutrea bidaltzeko erabilitako hiruzpalau estatistiken bidez ezkutatu dute: “Bilbon Murtzian baino hobeto bizi gara eta, ondorioz, kudeaketa ona egin dugu”.

Denboran zehar eta hauteskundeak baino lehen bide ugariaren bidez (EITB euskal irrati eta telebista publikoa barne) nonahi barreiatzen duten eraikitako diskurtso horren aurrean ez da apenas aurkako erreakziorik egon hauteskunde kanpainen zehar, non ezkerreko alderdiek ez diren kapazak izan, nolabait, diskurtso horren aurka era ireki eta eraginkorrean egiteko.

PSE-EE alderdia, ezkerrekoa dela esaten badu ere, EAJren gobernukidea eta Euskadin ezarritako ereduaren parte delako, legealdi berri honetan berriz ere agerian utzi duen bezalaxe.

EH Bildu, etorkizuneko bere proposamena EAJrekin zeharkako herri hitzarmen bat lortzean oinarritzen duelako, independentziazko eredu kataluniarraren antzeko bat bilatu ahal izateko eta, horren ondorioz, kanpaina EAJri eskua luzatuz egin duelako, herri garapenari dagokionean behintzat; hauteskundeak pasata, posizio berbera mantendu dute, gizarte arloan EAJk duen kontzientzia falta salatzen badute ere.

Eta gure kasuan, Ezker Anitza - IU hartzen duen EP koalizioaren kasuan, aipatu euskal oasiaren espejismoa salatu badugu ere, "Euskadi ondo doa" leloaren zerbitzura dagoen propaganda makinaria horren kontra borrokatzeko kapazak izan ez garelako eta koalizioaren diskurtsoa politika berritzera mugatzeko akatsa egin dugulako, eredu alternatiboa aldarrikatu ordez. Egia bada ere Elkarrekin Podemosen emaitzak espero zitekeenak ez zirela izan, hauteskunde orokorretan hartutako irabazteko itxaropenak eta gero, nabarmendu beharra dago garrantzitsua izan daitekeen aurrerapenerako eta Estatu federala bultzatzeko espazioa ireki dela Eusko Legebiltzarrean eta espazio horrek funtsezko papera jokatu duela abertzaletasun kontserbadorearen aurreko aldaketa eta alternatiba polo bat eraiki ahal izateko.

Langileen interes estrategikoekin eta haustura demokratikoa bultzatzeko apustuarekin bat doan gure espazio soziopolitikoari dagokionean, Ahal dugu - Podemos sektore ertainen atxikipena biltzeko potentziala duen indar gisa ageri da, bestela sektore horiek ez bailukete, inolaz ere, langileen interesen inguruan antolaturiko indar batekin bat egingo.

Sektore ertain horiek beharrezkoak dira errotiko aldaketa bat sustatzeko eta aliantza estrategikoa sinatu beharko dugu horiekin, langileen zentralitatekin, aldaketa ahalbidetzeko xedearekin. Bateratzeak, ondorioz, aliantza estrategiko hori erraztu behar du, gure herrialdea langileen alde eta oligarkiaren kalterako aldatuko duen bloke historikoa osatuko duen klase aliantzaren isla. Ahal dugu - Podemosekin eginiko aliantzak, ondorioz, Unitate Popular berriak kanpora begira gauzatuko duen jarduera artikulatu beharko du. Horri esker, hausturarako funtsezkoa den indar metatzea maximizatuko da, Podemosek hausturaren aldeko eta kontziliazioaren aurkako bere arima behin betirako besarkatzen duen bitartean. Aliantza horren baitan, gure politika eta gizarte mugimenduak bloke osoa

hausturara eta errotik aldaketara eramango duen indarra izan beharko du, kapa ertaina horien ezaugarria den politika bultzadatik batez ere ziurrenik etorriko diren kontziliaziorako tentazioak saihestuz.

EH Bilduk, bere aldetik, bigarren porrot bat izan zuen udal eta foru hauteskundetan baina emaitza hobekoak lortu zituen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundetan. Hiru lurraldetan indar garrantzitsua izan eta EAJren nagusitasuna Gipuzkoan eta Araban kolokan jarri eta gero, azken Udal eta Foru hauteskundetan kolpe handia jaso zuen, ondoko Hauteskunde Orokorretan berretsiko zena: 2 diputatu lortu zituen bakarrik Kongresuan.

Emaitza kaskar horien harira, ezker abertzaleak etorkizunean hartu beharreko estrategiaren inguruko hausnarketa prozesu bat ireki zuen. Eztabaida bi tesi nagusiren artean dago: soberaniaren aldeko frontea sortzea EAJrekin, Junts pel Siren eredu aintzat hartuz, edo ezkerreko aliantza bat eratzea gizarte eraldaketa bilatzen dugun Ezker Anitza – IU edo Ahal Dugu – Podemosekin, identitate ezberdintasun horretatik. Eztabaida horren emaitza osagai esanguratsuenetako bat izango da ezker abertzaleak euskal politikaren koordinatuetan hartuko duen posizioa zein den ikusteko.

Euskal hauteskundetan lortutako emaitza onen (bigarren indarra izatea lortu zuen) ondorioz, baina, nazio bloke zabal bat eraikitzearen alde jo zuen, Kataluniako ereduari jarraiki. Akordio hori herri akordio bat izango litzateke. Nazioa eraikitzeiko fronte zabala sortzeko strategiaren alde jo dute, herri akordioak deitu duten horretan, eta ez dute inolako arazorik izan gobernu akordio bat ere proposatzeko EAJri.

PSE-EE, bere aldetik, azken hauteskundetako galtzailerik nagusia izan da, bere boto arrantzategi nagusiak galdu baititu, Ezkerraldean batez ere, non Barakaldo bezalako alkatetza garrantzitsu bat ere galdu zuen.

Batzar Nagusietan, Diputatuen Kongresurako euskal barrutietan eta Legebiltzarrean eserlekuak galdu baditu ere, PSOEek botere kuota garrantzitsuak mantendu ditu euskal hiriak eta foru aldundiak koalizioan gobernatzeko EAJrekin lortu dituen akordioei esker. Nolanahi ere, berezko profil politikorik ez duenez, PSE-EE EAJren mendeko posizio batean kokatu da, egoera horren gailurra bi alderdiek sinatuko duten gobernu akordioa izango delarik. Honela, merkatuen eta kapitalaren zerbitzura geroz eta era nabariagoan eta hiritarretik geroz eta aldenduago dagoen eta PPK nazio mailan egiten dituen politika berberak Euskadin aplikatzen dituen EAJ baten mendeko figura bilakatu da.

PPK, azkenik, bere historiako emaitzarik txarrena lortu du Euskadin, Rajoyk gobernu zentralean egin duen kudeaketa txarrak, murrizketa politikak, ustelkeriak eta iraganen espainiar eskuinaren argudiorik nagusia izan zen indarkeriaren amaierak bere politika espazioa asko murriztu dutela agerian utziaz. Ciudadanosek UPyDren lekukoa hartu du, alde ñimiño batzuekin. Horrek agerian utzi du soziologia eskuin abertzale espainiarrak ez duela ia lekurik euskal biztanleen lehenetsuen artean.

Euskal politikaren testuinguru horren baitan, Ezker Anitza - IU eztabaida ezkerrean eta eskuinaren arteko gatazkan kokatzen saiatuko da, bai eta

euskaldun-espainiar ardatzaren inguruko zatiketa politiko zaharrarekin amaitzen ere.

Ezker Anitza – IUk PNV/PSE-EE gobernuen aurrean oposizio lana egiteko konpromisoa hartzen du, bi horiek gizarte eta ekonomia eredu bat partekatzen dutela eta aipatua elkarrekin babestuko dutela agerian utzi baitute. Eskuineko politikei aurre egingo diegu ere, beren burua ezkerrekotzat hartzen duten alderdiek -direnak direla- sustatzen badituzte ere. Gure nahia da gehiengo politiko berri bat eratzea, herrialdea ezkerreko egiazko posizioetatik lehen aldiz gobernatzea ahalbidetuko duen politika eta gizarte bloke bat eratzea. Ondorioz, bi jarduerak izango dituen estrategia bat garatu beharko dugu: bata kalean, gizartean, gatazka sustatzeko; eta bestea erakundetan, gure politika posizioak zabaldu eta erregimenaren aurka egiteko gure presentzia duten parlamentu eta erakundetan. Gure helburuak lortzeko erakundetan lan egitea nahikoa dela edo, alderantziz, mobilizazioak egitearekin nahikoa dela uste badugu akats izugarria egingo dugu eta Ezker Anitza - IUk gizartea eraldatzeko eta, gehienbat, sozialismoa lortzeko erabilgarria den politika eta gizarte mugimendu bat izateari utziko dio.

Norantz goaz?

Gure 8. Asanbladan adierazi genuen bezalaxe, 2011ko hauteskunde orokorren emaitzek, zeinetan ezker alternatibo eta federalaren indarrek botoen portzentaje esanguratsua lortu zuten, 15M Mugimenduak Euskadin zuen presentziarekin batera, agerian utzi zuten espazio esanguratsu baten existentzia euskal politikaren baitan.

Gure esanetan, euskal eta espainiar abertzaletasunen gatazkatik haraindi joateko alternatiba zen espazioa, praktikan ekonomia eta gizarte neurri berberak aplikatzen dituzten alderdi kontserbadore eta “progresisten” posizioen aurreko egiazko alternatiba. Euskaldun (bere erreferentzia eta eremua Euskadi delako), federal eta antikapitalistatzat jo dezakegun espazio bat.

Hori izan beharko litzateke Ezker Anitza – IUren konpromiso nagusia, gure gizarteko ekonomia eta balio krisiari aurre egin ahal izateko. Kontsentsuak batu behar ditugu espazioak eta ahotsa emanaz, sektarismorik gabe; hori izango da gure gizarte eta hauteskunde babesa handitzeko era bakarra.

Ba euskal hauteskundetako emaitzak ikusi eta gero, espazio horrek geroz eta tamaina handiagoa duela nabarmentzeko eguna da gaur, mobilizazioei zein erakundetan daukan presentziari dagokienean.

Aitortu beharra dago ez dela helburu erraza izango; kapitalismoaren aurkako ezkerre osatzen dugunon ideologizazio eta gaitasun kritikoa sakonek eskuzabaltasun dosi handiak eskatuko diete alde guztiei, akordioak lortzeko gaitasun handia eta, gehienbat, zorrotasun handia barne demokrazia eta erabakiak hartzeko prozesu gardenak eta komunak bermatzeko orduan.

Ez da erraza izango, baina kapitalismoaren aurkako ezkerrean dauden elkarte, gizarte mugimendu eta pertsonen konbergentzia horren eraikuntza ireki eta bateratu hori xede estrategiko bat da Ezker Anitza – IUrentzat. Pluraltasunetik eta horizontaltasunetik ulertu beharra dagoen konbergentzia, hegemonismo edo aurretiko baldintzarik gabe. Hausnarketa eta eztabaida prozesu batean, politika

arloko eta, ondorioz, hauteskunde eta erakunde mailetarako proposamena eta jarduketa adostu ahal izateko.

Ezker Anitza – IUk, bere sorreratik, konbergentzia prozesu hori sustatzeko eta bertan parte hartzeko bere konpromisoa berretsi du eta ahalegin handia egiten ari da, dagoeneko, helburu hori lortzeko.

Bere politika helburuak lortu ahal izateko, politika ekintzako ohiko metodoak (gizarte mugimendu eta sindikatuekin lan eginaz, mobilizazioak sustatuz eta erakundetan parte hartuz) berriagoak diren metodoekin uztartuko ditu (ziberaktibismoa, boikotak eta kontsumitzaile gisa hasitako ekintzak, desobedientzia zibila, salaketa ekintzak, etab.).

ALTERNATIBA: NAHI DUGUN EUSKADI

Ekonomia eta gizarte eremua

Mendebaldeak bizi duen ekonomia krisia, funtsean, gainprodukzioa oinarrian duen krisi bat da eta finantza krisi gisa izan du bere isla. Finantza krisia, bere aldetik, egiazko ekonomiaren krisia areagotu duen katalizadorea izan da.

Ez da hutsala ekonomia krisiaren jatorria zehaztea, aipatua gainditzeko hartzen diren edo ez diren neurriak justifikatzen baititu. Zentzu horretan, gobernuek aplikatu dituzten doikuntza neurri gogorrek pentsiodun, langile, mendekotasuna duten pertsona eta langabetan eragin ditu, horiek baitira defizit publikoaren murrizketa zorrotzaren pisurik handiena bere gain hartu dutenak.

Baina aplikatu izan diren neurriak (ekonomiaren liberalizazioa, lan-arloko malguketa edo zerbitzuen pribatizazioa, pentsio publikoak barne) "merkatuak baretzeko" balio duten ala ez frogatzen duen frogapen enpirikorik ez dago. Beren erabilera bakarra da espekulatzailen mozkinak handitzen dituztela lanaren errenten kalterako eta kontu publikoak txiroago eginaz.

Defizita Europako ekonomiaren osasuna neurtzeko aintzat hartu beharreko aldagai makroekonomiko gisa hartua izan da, bere eraginaren ebaluazio kritikoa eta Keynesen jarraitzaile diren ekonomisten artean ere sortu duen alarmari entzungor eginaz. Ekoizpen kapitalista gainditzeko beharra errefusatu eta erreforma kosmetikoen bidez bizirik irautea besterik bilatzen ez duten ideologia horietatik, austeritatearen alde itsu-itsu egiteak eta horrek Europar Batasun osoan ekarri dituen atzeraldien arrisku sistemikoak seinalatzen dira.

Kontsumoak behera egiten du eta aberastasuna esku gutxi batzuetan metatzen da. Horrek esan nahi du hartutako neurriak errenta baxuenen kontra doazela zuzenean eta gobernutik (Jaurilaritzatik zein Espainiako gobernutik) bultzatu nahi diren inbertsio publiko eta pribatuak uztartzeko formulen xede bakarra da kapitalismo kaltegarri horren garapena eta hiritar eta langile gehientzat porrota ekarri duen ekoizpen eredia bultzatu duten megaproiektuak sustatzea.

Ekonomia eta ekoizpen sistema mantentzea besterik bilatzen ez duten gobernuetako erabakien aurrean, inolako arrakastarik lortu ez dutenak, Ezker

Anitza - IUk dio alternatibak daudela, bai eta ekonomia kapitalistan ematen diren zikloetatik aldentzea dakarten krisitik ateratzeko konponbideak ere.

Kooperatibek, garapen ekonomikorako ekoizpen eredu gisa, beste modelo batzuek baino erresistentzia handiagoa agertu dute krisi garaietan eta enplegua sortzen dute jarduera sektore guztietan. Kooperatibek ibilbide sendoa agertzen dute enpleguaren sorreran eta mantentzean eta egun bizi dugun mundu mailako ekonomia krisi sakon honetan enplegua sortzen jarraitzen duten bakarrak dira. Kooperatibak, Gizarte ekonomiaren aktore nagusiak diren Enplegu Zentro Berezi, Gizarteratze Enpresa, Elkartea eta Fundazioekin batera, enpresa egiteko beste era baten adibideak dira. Ondokoak dira bere ezaugarriak eta eredu honen arrakasta azaltzen duten arrazoiak: pertsona eta enplegua kapitalaren aurretik, mozkinak talde irizpideak aplikatuz banatzen dira, erabakiak hartzeko prozesu partizipatiboak, Gizarte erantzukizuna, barne demokrazia, lurraldearekiko konpromisoa eta bizi-kalitatearen hobekuntza. Fagor Elektrotresnak enpresaren kasuak, halere, kooperatibismoaren balioen galera agerian uzten du.

Neoliberalismoak inposatu duen espiral honen aurrean (espekulazio ekonomiaren desagerpena saihestea xede duten bitarteko publikoak eta ondorioz datorren egitura publikoaren murrizketa, “gure ahalmenen gainetik” bizi izan dugula aitzakitza hartuz), diru-sarrera publikoak hiritarrei zerbitzu publiko unibertsalak eskaini ahal izateko erabili beharra dago, berdintasuna, elkartasuna eta aberastasunaren birbanaketa bermatzeko; horren ordez, dirua finantza erakundeei eman zaie, beren zuloak estali ditzaten.

Hasteko, eta ekonomia kapitalistaren krisiaren areagotzearen jatorrietako bat finantza sistema izan dela aipatu dugunez, horren errotiko erreforma egin beharko da, asko baitira krisiaren pusketak hartu eta espekulazioa berrezarri nahi dutenak, ezer gertatu izan ez balitz bezalaxe.

Finantza krisia sortu dutenen premiazko neurriak hartu beharko ditugu eta, horiek, funtsezkoak izango dira finantzazioaren fluxuak ekoizpen jarduerarantz jo dezan, espekulazioa hutserantz joan beharrean:

banku publikoak berreskuratuz eta beren pribatizazioa ukatuz, finantza transakzioak grabatuko dituen zerga bat ezarriz epe baterako, paradisu fiskalekin bukatuz eta finantza espekulazioa zigortzeko neurri osagarriak hartuz, besteak beste. Egungo finantza krisiak merkatuak bere burua arautzeko duen gaitasun eza agerian utzi du, tesi liberalenak defendatzen zuten bezala, eta bankuak nazionalizatzeko beharra agerian utzi du ere, aurrezki gehienak bankari pribatuen esku dauden bitartean, egiazko boterea esku pribatuen esku egongo baita ere.

Behar-beharrezkoa da sektore publikoak finantza sektorearen funtzionamendu ona kontrolatzea eta bermatzea, honela krisien izaera sistemikoa saihestu eta finantza polo publiko bat ezarriko baita, finantza sektorearen oligopolizazioaren aurrean. Honela, krisiaren konponbidea herriaren ekoizpen birmoldaketarekin batera etorriko da eta bitartekoak epe luzearako irizpideen arabera bideratuko dira, ekoizteko beste era bati, gizarte, ingurumen eta lan arloetako arrazionaltasun bati erantzungo dion sektore egitura bat sortzeko.

Zentzu horretan, berebiziko garrantzia izango du zerga politiketan eta enplegu politiketan esku hartzea. Eta ogasun publikoaren inguruan aditu ezberdinek esan

dutenarekin bat, garrantzitsua izango da zerga iruzurraren aurkako behatoki independente bat sortzea, aipatua ebaluatu eta kuantifikatu dezan, iruzurraren eta kobrantzaren aurkako neurrien eraginkortasuna balora dezan eta neurri zuzentzaileak proposa ditzan, urteroko egoera txosten bat aurkeztuz Eusko Legebiltzarrean eta lurralde historikoetako batzar nagusien aurrean, hala balegokio.

Europako gobernuek gastuak murrizteko xedearekin aplikatu dituzten defizita murrizteko politikaren aurrean, Ezker Anitza – IUk diru-sarrerak areagotzearen alde egiten du, azken hamarkadan aplikatu diren zerga politikak erabat aldatuz.

Zentzu horretan, behar-beharrezkoa da zerga iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka gobernu ororen lehentasunen artean kokatzea, PFEZren tarte altuenak igotzea, aurrezkiaren diru-sarrerak lanaren errenten diru-sarrerarekin lotzea, bai eta sozietateen gaineko zerga eta ondasunen gaineko zerga aldatzea ere, besteak beste.

EAJ/PSE-EEK eta PPK ekonomia ongialdiko urtetan zehar Batzar Nagusietan aplikatu dituzten zerga neurriek, zerga presiorik txikiena duten OCDEko herrialdeen artean kokatu dute Euskadi, muturreraino gutxitu dituzte diru-kutxa publikoetan zeuden fondoak eta, ondorioz, errotiko neurriak hartu beharko dira diru-sarrerak eta egun arriskuan dauden ongizatearen estatuaren funtsezko osagaien mantentzea bermatu ahal izateko. Euskadiko zerga presioa BPGren % 32koa izan zen 2014. Urtean. 2012n % 30,8koa izan zen, Europako batezbestekoa baino 8,6 puntu beherago. Horrek esan nahi du EB-28 taldeko zerga presio berbera aplikatuz gero, 5.683 milioi euro gehiago lortuko liratekeela. Bilakaerari begiratuz, 2008 eta 2014 bitartean zerga presioak 0,3 puntu egin zuen gora EAEn; igoera hori progresiboak ez diren zergen bidez egin zen gainera, BEZ zerga igoz esaterako.

Halaber, zerga iruzurra euskal BPGren % 17,4ean kokatu da, hau da, 11.797 milioi euro ogasunaren kontroletik kanpo gelditzen dira eta horrek esan nahi du euskal diru-kutxetan 2.320 milioi euro gutxiago sartzen direla, euskal aurrekontuaren % 25a ia, Eusko Jaurlaritzak agindutako "Euskadiko ezkutuko ekonomiari eta zerga iruzurrari buruzko txostena" (2016) izenekoak dioenaren arabera. Ekonomia krisiaren eta hartutako erabakien ondorioz, milaka langileren lan-arloko eskubideak arrisku larrian daude eta beren lanpostuen egonkortasuna eta beren soldaten zenbatekoa asko murriztu egin da.

Euskadin egun dauden 150.000 langabeak horren adierazle garbia dira, bai eta euskal administrazioak lan-arloko arau berrien oinarrituta onartu dituen EEKak ere.

PP, PSOE eta C's Kongresuan eta Senatuan dituzten itunak eta Europar Batasunak aplikatzen duen austeritate politika irmoak egoerak okerrera egingo duela iragartzen dute eta Ezker Anitza - IUk bere proposamenen inguruko gizarte pedagogia egin nahi du eta kalean mobilizatu nahi du beste gizarte eragile ezberdinekin batera, merkatuen aginduen mende dauden agintari europarren abusuak gelditzeko erreminta eraginkor bakarra den heinean.

Galdutako eskubideak berreskuratzeko erreminta bakarra aldarrikapen horren inguruko sindikatuen batasuna da. Horrela frogatu du mundu osoko zein Euskadiko langileen mugimenduaren historiak eta azken adibidea Euskadiko

negoziazio kolektiboa egituratzeko lanbide arteko akordioa da. Aipatuak, galdutako eskubide guztiak berreskuratzeko, euskal langileak hitzarmen bidez babesteko, prekarietatearekin bukatzeko eta bilatzen ez den lanaldi partzialeko enpleguarekin eta langileen soldata eta lan-arloko bereizkeriarekin amaitzeko xedearekin egindako euskal sindikatuen arteko fronte komun baten jatorri izan behar luke. Ezker Anitza – IUk xede horretarako egindako mobilizazio guztietan parte hartuko du eta helburu horien inguruko unitatearen alde egitea eskatuko die sindikatuei, langile guztietako interesen defentsa nazio mailako ezberdintasunen edo sindikatuen interesen partikularren aurretik jar dezaten.

Azkenik, kapitalismoaren egungo fasearen kudeaketan egin den doktrina neoliberalen inposaketak egungo krisia sortu eta kapitalaren eta lanaren interesen arteko kontraesanak areagotu dituela jakin badakigu ere, esan beharra dago oinarrizko arazoa sistema kapitalista bera dela, bere motor nagusia kapitalaren zekenkeria asetzea baita eta ez pertsonen beharrak betetzea. Ondorioz, gure xedea ekonomia sistema kapitalista gainditzea dela aintzat hartu beharko dugu gure proposamenetan eta politika ekintzetan. Ekoizpen bitartekoak publikoak bihurtu beharko ditugu sektore estrategikoetan eta langileen partaidetza sustatu beharko dugu enpresen baitan, demokrazia bermatzeko ekonomia eta lan-arloko harremanetan. Honela, egiazko kooperatibismoa sustatuko dugu, langileak ekoizpen bitartekoen jabeak izan daitezzen.

Halaber, eta euskal zerga sistemaz baliatuz, Enplegua Euskadin Bermatzeko programa bat abiarazi beharko dugu, Estatuak enplegua bermatzeko eta sustatzeko duen beharrari lotuz, langabeei lan-baldintza eta soldata duineko lanpostu bat bermatzera behartuta egongo bailitzateke Estatuak. Aipatu lanpostuak sektore berdetan (energia berriztatzailak, nekazaritza eta abeltzaintzako probetxamendua, hiriguneen birgaitzea), bai eta behar bereziak edo mendekotasuna duten pertsonak eta gizarte egoera ahuleko taldeak artatzeko sektoretan ere metatuko lirateke.

Politika guzti horiez gain, lanaren banaketa sustatu behar dugu, lan karga beren bizitzako beste egoera ezberdinetara egokitzeko aukera izan dezaten langileek. Aipatu banaketak lan-bizitza eta familia bateragarri egiten ditu eta lan merkatuan sartzen diren pertsonak areagotzen ditu.

Gizarte demokrazia eraikitzen. Berdintasuna eta bizitza duina

Politika eta gizarte arloko demokrazia kontraesan bat da ekonomia arloko demokraziarik gabe. Ez dago gizarte demokraziarik ekonomia demokraziarik gabe.

Horrek esan nahi du ezkerrek ongizatearen sistemak defendatu behar dituela, alde batetik eta, bestetik, beharrezko aliantzak eraiki behar dituela gizarte Estatu batean. Hau da, eskubide bakoitza zerbitzu edo botere publiko baten aldetik bermatua egon dadin, Estatu txikitzeke proposamen neoliberalaren aurrean. Zerbitzu publikoek hiritarren oinarrizko beharrak asetzea ahalbidetzen dute, sarbide unibertsala, bereizkeriarik gabekoa eta doakoa bermatuz. Gizarte kohesioa ahalbidetu eta zeharkako soldata bat suposatzen duten zerbitzu horiek lortzeko esfortzu eta borroka ugari eskatu ditu, herritarren aldetik, azken bi mendetan.

Neoliberalismoaren marko estrategikoak eta kapitalismo globalaren egungo faseko baldintzek, baina, gerra irekia hasi dute zerbitzu publikoen aurka. Horrek esan nahi du Zerbitzu Publikoak ondasun publikotzat hartu eta, ondorioz, Estatutik etorritako funts publikoen bidez aipatuak finantzatzen dituen marko batetik enpresa pribatuen -kudeaketaren arduradunak eta, azkenean, egitura horien jabe-esku dauden zerbitzuak errazten eta arautzen dituen Estatu batera pasatzen garela. Aipatu enpresek ordainketa bat eskatzen dute zerbitzuak ematerakoan izandako kostuak berreskuratzeko eta erabiltzailea kontsumitzaile huts bilakatzen da; funtzionamendu okerren bat emango balitz, erantzukizunak eta kontuak eskatzeko prozesua beste hornitzaile pribatu bat bilatzeko balizko prozedurara mugatuko litzateke, azken hori posiblea balitz, zerbitzu garrantzitsu gehienetako monopolio izaerak irrealia egiten baitu egiazko lehiakortasuna.

Pribatizazioen aurrean Estatu gehiago proposatzen dugu guk eta zerbitzu publikoen izaera unibertsala defendatzen dugu, errentaren araberako aukeraketaren aurrean.

Ez dugu zerbitzu publiko eta ondasun komunen pribatizazio gehiagorik nahi, aipatuak “berriz udalekotzea” eta jabetza publikoa berriz bilakatzea baizik. Enpresa publiko boteretsuen existentzia defendatzen dugu banka, energia, garraioa edo telekomunikazioak bezalako ekonomia arlo estrategikoetan. Zerbitzu publiko nagusiak indartzearen aldeko apustua egiteak funtsezkotzat jotzen dugu ere:

Hezkuntza

Ezker Anitza - IUren apustua, lehenik eta behin, hezkuntza publiko, laiko eta doakoa da, hori baita hezkuntzarako eskubide unibertsalaren berme bakarra berdintasun eta demokrazia baldintzetan, baita gizarte kohesiorako eta pertsonak BERDINTASUNEAN, libre eta kritiko hezteko oinarria ere. Hala ere, eskuindarrentzat, beti izan da ideologia nagusia erreproduzitzeko elementu bat, eta horren fruitu dira iraganera bultzatzen gaituzten legeak, adibidez, LOMCE. Ezker Anitza - IUren iritziz, hezkuntza herritar libreak, bizi proiektu autonomia eraikitzeke gai direnak, sortzeko erreminta izan behar da.

Horregatik guztiagatik, oinarrizkoa da Eusko Legebiltzarrak LOMCE bertan behera uzteko irmo eskatzea eta Heziberri prozesua geldiaraztea (haren euskal baliokidea baita), eta hezkuntza komunitatea osatzen duten askotariko eragileekin batera partaidetza prozesu bat martxan jartzea, XXI. mendeko kalitatezko hezkuntza publikoa bermatzeko beharrezko erremintak zehaztu ditzan. Curriculum laiko, kultur arteko, inklusibo, euskaldun, feminista eta ekologista sortzea, ikastetxeek eta hezkuntza komunitateak gure autonomia pedagogikoaren arabera lan dezaten. Edozein erlijio, baita haien ekintzak edo sinboloak ere, eskola ingurunetik kanpora geratuko da.

Horretarako, ondorengo lan ardatz eta ildoak proposatzen ditugu hezkuntza komunitateari benetan baliagarria izango zaion Euskal Hezkuntza Lege berri bat eraikitzeke, eta Europako puntako herrialdeen pareko hezkuntza eredu baten alde:

Titularitate eta kudeaketa publikoko ikastetxeen sarea zabaldu eta hobetzea, askotariko etapa eta hezkuntza modalitateetan eskolatze beharriaz aurre

egiteko, bermatuz lurzoru publikoa bakarrik eskola publikoarentzat izango dela. Hezkuntza goiztiarrari arreta berezia jarriko diogu, 0 eta 3 urte arteko plaza publiko nahikoak sortuz.

Irakaskuntza publikoaren doakotasun osoa bermatzea, haur hezkuntzatik hasi eta unibertsitate arte eta, horretarako, behar beste baliabidez zuzkitzea, tartean direla material didaktikoak, liburuak, jantoki zerbitzuak eta eskola garraioa, baita egoitza beka eta beka-soldata hala behar duten ikasleentzat ere.

Eskola jantokien eskandaluaren ondoren, gainera, EAJK eta PSEk bultzatutako kudeaketa ereduaren aurrean (catering oligopolio bat sortu eta kudeaketa txarra ekarri baitituzte), apustu egiten dugu beren burua kudeatzen duten eskola jantokien eredia bultzatu eta sustatzearen alde, kalitatearen, 0 KMren (hurbileko eta tokiko produktuak) eta sasoiko izatearen printzipioetan oinarrituz, tokiko esperientzia batzuek aurreratu dutenarekin bat etorritz.

Erakunde eskumendunei (udalak, foru aldundiak) exijitzen diegu, gainera, aisialdiko jarduerak sustatzea, udan eta Eguberriko zein Aste Santuko oporretan eskola jantokiak ireki eta aldi berean. Era horretan, jarduera ludikoen bitartez, ingurune babesgabeenetako haurrak zuzen elikatzen direla bermatu nahi dugu. Arartekoak emandako datuen arabera (2014), 16.000 inguru haurrek pairatzen dute nutrizio gabezia Euskal Autonomia Erkidegoan, eta haur pobrezia arrisku tasa bertan % 16an kokatzen da.

Hezkuntza publikoaren aldeko gure apustu irmoan, pixkanaka kenduko ditugu hezkuntza itunak, erabat desagerrarazi arte, beren gogoz eta negoziatuta, itunpeko ikastetxe pribatuak ikastetxe publikoen sare bakar batean integratuz, integrazioarako neurriak arautuz eta irakasleak homologatuz. Berehala kenduko ditugu ikastetxeen itunak baldin eta sexu arrazoiengatik diskriminatzen badute, edo ikasleak aukeratzeko arrazoi ekonomikoak edo ideologikoak erabiltzen badituzte, edo beste kultur edo pertsona ezaugarri batzuk. Titularitate edo kudeaketa publikoko sare planifikatu eta nahiko bat sortu nahi dugu, itun ereduari pixkanaka amaiera emango dion urte arteko plan bat ontzearen bitartez; izan ere, itun eredu horrek 600 milioi euro eskatzen ditu urtero (2016an, 601,4).

Azkenean, ezin bestekoa da hezkuntzako inbertsioak handitzea, 2020an BPGren % 7ra heldu arte. Baliabide publiko guztiak titularitate publikoko ikastetxeak finantzatzera bideratuko dira, baita irakasleen zein hezkuntzako beste profesionalen plantillak handitzera ere, taldeko eta irakasleko eskolatuen kopurua murrizteko, eta ikasleen askotariko beharrezaneiei erantzuteko. Hezkuntza publikoan eta itunpeko pribatuan, ikasgelako ratioak murriztea: ikasgelako 20 ikasle lehen hezkuntzan, eta 13 haur hezkuntzan.

Hala ere, kontua ez da euskal hezkuntza sistemaren baliabideak handitzea bakarrik. Bere filosofia ere aldatu beharrekoa da, guztiok ikasketa adierazgarriak jasotzeko dugun eskubidea aitortzen duen hezkuntza nahi baitugu, era horretan derrigorrezko hezkuntzan ikasle guztien eskolako arrakastan laguntzeko. Horretarako, curriculum, metodologia eta antolakuntza aldaketak sartu behar dira ikasleen dibertsitatearen aurrean erantzun hobeak eskaintzeko, arreta berezia jarri zailtasun handienak dituztenekin, eta gizarte babes gutxieneko ikasleen ingurune eta ikastetxeetarako baliabide gehiago jarri. Hezkuntza sistema publiko

euskaldun baten aldeko apustua egiten dugu, egungoa ez bezala hizkuntza eredu bakar bat izateko joeraduna, eta euskara komunikazio hizkuntzatzat duen eredia lortzera bideratua, baita gure hizkuntzaren erabilera gizarte osoan normalizatzeko eragile garrantzitsua dena ere.

Horren garrantziaz jabetuta ere, irakaskuntza publiko hirueledunaren alde ere apustu egiten dugu, baldin eta Euskadiko bi hizkuntza ofizialak ikastea bermatzen baldin badu eta, diseinuan zein ezarpenean, hezkuntza komunitateko eragileekin bat etorriz. Beharrezkoa da irakaskuntzako profesionalei heziketa eta baliabide gehiago ematea Euskadin irakaskuntza hirueleduna behar bezala garatu dadin.

Bukatzeko, ezin bestekoa irizten diogu hezkuntza komunitateko sektore guztien partaidetza demokratikoari ikastetxeen eta askotariko eskola barrutien antolamenduan eta kudeaketan. Klaustroek eta eskola kontseiluek, ikastetxeetako gobernu organoak diren aldetik, erabakimen osoa izango dute beren eskumeneko gaietan. Eskola demokratikoak eraiki nahi ditugu hirien, herrien, auzoen testuinguruan eta hezkuntza inguruneetan, ikastetxeko hezkuntza dinamikan eta hiri, herri edo auzoaren eraketan ikasleen partaidetza sustatuz, baita hezkuntza publikoaren funtzionamenduan eta hobekuntzan auzotarrak inplikatur ere, eta hiria zein haren ingurunea benetako hezkuntza bitarteko bihurtuz.

Beharrezkoa da pertsona etorkinen integrazioaren alde apustu egitea eta gerra gatazka edo beste arrazoiak direla tarteko heldutako errefuxiatuei harrera egitea, integrazio egokia erraztuz eta gure gizarte barruko kultura, gizarte eta ekonomia emantzipazioan haiei lagunduz.

Unibertsitatea, halaber, gizartearen ispilu izan behar da, baita gogoetarako eta ezagutzaren aurrerabiderako espazio ere, egun martxan jartzen ari den eruditik urrunduz, eskusiban merkatura bideratua eta merkaturazalea baita. Ezker Anitza - IUK "2015eko Unibertsitate Estrategia" deitutakoa geldiaraztearen alde dago, baita unibertsitateko kideen artean eztabaida irekitzearen alde ere, gizartearen zerbitzuko unibertsitate publikoko alternatiba partekatu bat adosteko, eta ez merkatuaren zerbitzutan. Unibertsitate hezkuntza doakoa izatea dugu helburutzat, bitartean gutxienez tasak eta beka-soldata sistema orokortu bat finkatuz, ekonomia babesgabeko sektoreak sartu ahal izatea bermatzeko. Unibertsitateen finantzaketa publiko nahikoa bermatzeko, gutxienez BPGren % 2 baliatuko da.

Beharrezkoa da, halaber, hezkuntza arlo guztietan prebentzioari garrantzia emateko neurriak hartzea, adibidez, sexu dibertsitate gaietan heziketa ematea. Ezin bestekoa da berdintasun eta dibertsitate kulturalan hezteak, diskriminazioa galarazten duen eskola nahi baitugu. Irakaskuntzak hiru oinarritzko ikuspegi bildu behar ditu: genero ikuspegia, giza eskubideen ikuspegia, eta dibertsitate ikuspegia. Alde horretatik, hiru ikuspegi horiek lantzen dituzten curriculum programa berezien, ekintza protokoloen eta heziketa erreminten alde apustu egin behar da.

Eskola jazarpenaren eta adin gero eta gazteagoetan eragiten dituen heriotzen inguruko iritziaren oihartzuna azken urteotan handitzearekin batera, apustu egin behar dugu hezkuntza komunitateko eragileen arteko eztabaida sendotzearen alde, eskola jazarpenaren kontra erremintak hobetzeko, baita ondorengoak ere: Eusko Jaurlaritzaren protokoloa, curriculum programa eraginkorrak, irakasle eta

gurasoentzako prestakuntza eta detekzio erremintak eta gizarte gisa transmititzen ditugun balioak.

Ezker Anitza – IU haur etorkinak integratzen laguntzeko heziketa planak sortzearen alde dago, eskolatze onena izan dezaten haiei behar laguntza emanaz.

Gazteria

Kapitalismoaren egungo krisiak erakutsi du langile eta herri klaseen multzoan sektore batzuk babesgabeagoak direla, jatorria, sexua edo adina direla tarteko. Espainiako Estatuko eta Euskadiko gazte langileen egoera eta jasaten dugun krisi kapitalistaren ondorioen zakarkeria berezia ikusita, kasu honek aipamen eta azterketa berezia eskatzen ditu.

Sistema kapitalistak eta hura oinarritzen duten pertsonen interesak fatxada ideologiko bat behar dute praktikatzeko esplotazioa legitimatzeko, egiten dutenari babesa ematen dioten tesi batzuk, “gizartearen onuran” egiten omen baitute. Alde horretatik, kapitalismo garaikideak diskurtso ildo batzuk baliatu ditu bere burua zilegitasun horrekin janzteko. Alde batetik, doktrina ekonomiko eta ideologiko gisa neoliberalismoan sustraitutako diskurtso bat eta, bestetik, gizarte harremanen eredia (egun, adibidez, patriarkatu garaikidearen formaz) gizarte kontrol eta esplotaziorako erreminta gisa, bereziki emakumeak eta gazteak estigmatizatzen dituena.

Izan ere, gizarte garaikideak joera du patriarkatua harreman sexu-politikoaren sistematzat hartzeko eta, aldi berean, sistema hura askotariko erakunde publiko eta pribatuetan eta gizonezkoek ezarritako klase eta genero arteko elkartasunean oinarritzeko; gizonezkoek, bestalde, gizarte talde gisa eta banaka zein kolektiboki, emakumeak zapaltzen dituzte banaka zein taldean, eta haien produkzio eta ugalketa indarraz jabetzen dira, haien gorputzez eta produktuez, dela bake bidez, dela indarkeria baliatuz.

Hala ere, ezkerretik ere bai, joera dugu adinaren aldagaia “patriarkatua”ren esanahitik baztertzeko, nahiz eta kontzeptu horrek jatorriz ezartzen duen gizonek emakumeen gainean lehentasuna dutela baina, gainera, pertsona nagusiek gazteen gainean ere halaxe dutela (patriarkatua beti zen eta da gizona, eta beti norbait adinez nagusia). Eredu horren eta sistemak oinarri hartzen duen ikuspuntu horren ondorioz, bizi garen gizartean gazteriari behin eta berriz ukatzen zaizkio eskubide oinarritzkoenak ere eta, gazteak izate hutsagatik, diskriminatuak dira. Gazteek herritartasun osora heltzeko eta berme osoz bizi proiektu autonomo eta emantzipatu bat garatzeko eskubide legitimoa nola ukatzen zaien ikusten dute.

Gabezia demokratiko horiek, gure eremuan, oinarritzko eskubideen ukapena ekarri dute, adibidez, hezkuntzan, osasunean edo etxebizitza eskurapenean, baita lan gaietako diskriminazioa eta gazte sare antolatuen kriminalizazioa ere (intsumituak, Gazte Asanbladak, okupa mugimendua, ikasle mugimendua...). Ondorioz, EAEn gazte izateak gizarte bazterketako arriskuan egotea esan nahi du ia.

Gazteok, gazte izatearren, diskriminatzen gaituzten gaiak ondorengoetan laburbil daitezke:

Etxebizitza

Etxebizitzarako eskubide unibertsalaren ukapenak esan nahi du ezin dugula bizi egitasmo baten aukera ere aurreikusi. Gazteriak urratuta ikusten dituen oinarritzko eskubideetako bat da, Espainiako Konstituzioak herritarrek etxebizitza eskubidea dutela zehazten duen arren. Errealitatea da pertsona gazteek zailtasun berezia dutela, eta orain arte martxan jarritako politika publikoek ez dute konponbiderik eman.

Espekulatuzaileek eragindako higiezinaren burbuila lehertzearen ondorioz, pisuen prezioa eta interes tasak jaitsi egin dira eta, hala ere, datu ofizialen arabera, pertsona gazte batek soldataren % 62,8 gorde beharko luke hipoteka edo alokairua hilero pagatzeko edo, bestela, bere diru sarrerak ia bikoiztu, horren % 30 etxebizitza ordaintzera bideratzeko (jabetzan etxebizitza librerako % 78,1etik hasi eta, etxebizitza alokairurako, % 112,8raino).

Zenbaki horiek ikusita, ez da harritzekoa Euskadin Etxebideren babeseko etxebizitza eskatzen duten pertsonen % 58 gazteak izatea.

Etxebizitza babestuez ari garela, ikusten dugu ehunekoak hurbilago daudela jasangarritzat ezarritakotik (% 31,4 jabetzan pisu babestu bat eskuratzeko eta % 24,2 alokairuan).

Hala eta guztiz ere, estatistika horiek batez besteko soldata baten zenbakietan oinarritzen dira, baina egun, gazte gehienek ez dute horrelakorik.

Euskadiko gazteriaren emantzipazioko batez besteko adina 30 urte eta 8 hilabete da, erdia baino gehiago: % 52. Beraz, artean, gurasoen etxean bizi dira, eta 10etik 4k ez dute independizatzeko aukera ere aztertzen, horretarako diru sarrera nahikorik ez dutelako.

Beraz, errealitate horri entzungor egiten ez dion etxebizitza politika bat egin behar da. Euskadiko etxebizitza hutsen multzoa kentzen joan behar gara, babespeko merkatura horiek atereaz. Bermatu behar da soldataren % 30etik gorako gastua inoiz gainditzen ez dituzten intereseko maileguak eta gazteentzako gizarte alokairuen esleipena, baliabide gutxien dituztenei batez ere zuzenduak.

Laburbilduz, etxebizitza eskubidea pixkanaka botere publikoen (eta ez eraikuntza enpresen eta merkaturen) eskuetan dagoen eskubide bihurtu behar dugu.

Lana

Laneko mundua da gazteria oso bereziki diskriminatzen duen beste espazio bat. Ia esperientziarik gabe baina heziketa guztia dugula, biziraun behar dugu gainerako biztanleriaren beharrian berdinak edukita, baina askoz aukera gutxiagorekin, belaunaldi oso bat baldintza duinetan lan mundura sartzea ia ezinezko bihurtuz. Urrutirago joan gabe, Estatuko gazteriaren % 41 inguru langabezian dago, eta zenbaki hori EAEn ere asalatzekoa da: lan egin nahi duten 25 urtez beheko gazteen % 31k ezin du egin.

Gainera, zabor kontratuen parrastada batekin kolpatzen ari zaizkigu gazteoi, “hartu ala utzi” aukera oinarri hartuta.

Eredu postfordista aldatzearekin batera, lan indarraren dualizazio zakar bat gertatu da, fordismoarekin gertatzen zena baino askoz handiagoa. Kalitate zirkuluen, giza baliabideen kudeaketaren diskurtso osoa, lan egonkorra duten langile balioanitzen talde bati zuzentzen zaio, gehienetan gizonezkoak, bertakoak eta adin ertainekoak; gainera, enpresaburuek haiekiko lan harremanak banakatu nahi dituzte.

Talde horrek langile multzo handi bat du aldamenean, kolokako egoeran edoaldi baterako kontratuekin: kolektibo diskriminatuen zutarri oso bat (emakumeak, gazteak, pertsona etorkinak, etab.), kalitatezko lanaren gailurraren aldean oinarri handiagoa osatzen dutenak.

Autonomo faltsuak, praktiketako zabor kontratuak, edo kolokako bekadunak, horiek dira egun eskaintzen diren enplegu formak, txandakako lanorduekin eta txantxetako soldatekin, enpresa handiek eta bankuek etekin oparoak poltsikoratzen dituzten bitartean. Horren adierazle dugu Espainiako Estatuan biztanleriaren % 60 baino gehiagok hilean 1.000 euro baino gutxiago kobratzen duela, eta Euskadin zenbaki hori langileen % 41 da: ia 390.000 pertsonak hileko 1.000 euro baino gutxiago kobratzen du, gazteen ehuneko altu bat.

Egoera hori ikusita, Iñigo Urkulluren Eusko Jaurlaritzako Euskadiko III. Gazte Plana 2020k proposamen sorta bat adierazi du enplegu gaietarako, berriz ere egoera honetara ekarri gaituen ereduaren alde apustu egiten duena. Bi ardatzen inguruan harilkatzen da:

Euskal gazterian autoenplegua bereziki sustatzea, gazteek mikroenpresak eta negozio txikiak martxan jartzea babestuz. Hain zuzen, bizi dugun krisi testuinguruak enpresa handiaren kapital metaketa prozesuak eta lehiakideen suntsipena ditu ezaugarri nagusi, eta horrek esan nahi du dagoeneko Euskadiko gazteriak bizi duen prekarietatea eta esplotazioa areagotzea, ez bada zuzenean hondamendira eramatea, erkidego honetan 4 ETEtik 1 ez baita heltzen urtebetez funtzionatzera.

Lehen lan esperientziarako programak eta laguntzak ezarri eta sustatzea eta enpresan Lanbide Heziketa areago garatzea (etengabeko heziketa eta LH Duala), eta horrek esan nahi du enpresen eskueran eta itzuli beharrik gabe baliabide publiko gehiago jartzea; izan ere, arlo horretan egindako programen oinarria da ikasle bat lanaldi erdiz baliatzearen truke enpresa sinatzaileari hobariak eta pizgarriak esleitzen zaizkiola. Teorian, ikasle hori heziketa jaso duen zereginetarako baliatu behar da, eta haren lana dagokion lan hitzarmenean kokatzen da.

Egungo egoeran, Lankide Heziketako ikasgelak gainezka betetzen dira, industria ehundura desegiten ari da eta, horrekin batera, ez dago batere araututa hitzarmen honekin nor bat egin dezakeen; gainera, azken hamarkada honetan, lan eskubide gaietan atzerapena izaten ari gara. Beraz, errealitatea da eredu horrekin bat egin dezaketen ikasleen zati txikia eguneko maratoni lanaldiei aurre egin beharko diola lana eta ikasketak txandakaturik, enpresarentzako etekinak sortuz (lanarengatik eta sortzen dituen hobariengatik) eta, trukean, betetzen duen postuari dagokion soldataren % 75 bakarrik jasoz.

Ez da harritzekoa, aurrean dugun etorkizun goibela ikusita, gero eta gazte gehiagok zortea atzerrian probatzea, ia 20.000, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren arabera; sarritan, esplotazio eta prekarietate arazoak aurkitzen dituzte, baita pertsona etorkinek dituzten eskubideen urraketa ere, Marea Moreak hainbeste aldiz salatu duen bezala (osasun sistematik baztertuta egotea, boto eskubidea erabiltzeko trabak, etab.).

Beraz, beharrezkoa da erakunde publikoek orain arte egindakoez guztiz bestelako gazte enplegu politikak egitea, “lan berdina, soldata berdina” printzipioaren arabera, kontratazio irregularra, praktika faltsuak, miseriazko bekak jazarriz, baita errelebu kontratuak edo enplegu politika aktiboetako gazteen kupoak bultzatuz, eta bereziki amaitzea lanpostuan emandako urteek pedigria ematen dutelako kultura zaharrarekin, pertsona gazteek urteetako esperientzia duten pertsonen baino nabarmen gutxiago kobratzen baitute lan berdina eginez eta, tarteka, prestakuntza akademiko eta alfabetizazio teknologiko eta tekniko askoz aurreratuagoaz.

Halaber, gure betebeharra da euskal sindikatu mugimendu gazteari laguntzea, heziketa eta antolamenduari balioa emanez, eta lan eskubideen inguruan borrokatzea.

Hezkuntza

Gure oraingo garai honetan, hezkuntza, beste ondasun batzuk bezala, salmentan dago eta, beraz, gure etorkizuna ere, salmentan da. Hezkuntzako erreforma garaiak dira eta, bertan, errentagarritasuna bilatzen duen filosofia bat proposatzen da, eta pertsonak lan merkatuan sartzeari. Hezkuntza lan munduari gehiago uztartzeko aitzakian, hurrenez hurrenko erreformak hezkuntza produkzio kate kapitalistako pieza hutsak bihurtzen ari dira, ikastetxeak enpresen eta multinazionalen zerbitzuko faktoriak, hezkuntza, eztabaida eta herritar kritiko eta libreak sortzeko guneak izan ordez.

Alde horretatik, Unibertsitate Estrategia 2020k, LOMCEk edo haren euskal bertsioak, Heziberrik, “amerikar” estiloko hezkuntza eredu pribatizatua dakarte, bakarrik gutxi batzuen irismenean. Aldiz, pixkanaka-pixkanaka hezkuntzako gastua murriztu egin da, eta hezkuntzako erabaki espazioetara enpresei eta ekimen pribatuei sartzeko modua ematen zaie, lehiakortasunean oinarritutako haien metodo pedagogikoekin batera, elkartasun eta iraunkortasun gabeko gizarte eredu baterantz bideratuta.

Horrenbestez, egun, inoiz baino gehiago, babestu behar ditugu oinarritik sortutako ikasle mugimenduak, eta hezkuntza publiko, laiko, feminista, unibertsal, doako eta kalitatezkoaren aldeko apustua egin, gure gizartearen etorkizun askea bermatze aldera.

Denbora libre eta aisialdi alternatiboa

Kapitalismoak baditu bizi segmentu guztietan etekin ekonomikoa bilatzeko dinamikak eta, ondorioz, horrek gazteria eraman du une honetan bere denbora libreari buruzko ohiturak aldatzera. Aisialdia edo kultura kontsumo ondasunak direla eta kirola lehiakorra eta elitista izan behar dela ezarri den mundu honetan, indibidualismoa sustatzen da balioen gainetik, adibidez, elkartasuna edo

berdintasuna, eta aurkitzen dugu gazteek ezin dituztela haien egitasmoak aurrera atera sistematik bazterrera eta sistemak ezartzen dituen arauetatik kanpora.

Gainera, ikusten dugu gazteriaren politika edo gizarteko partaidetza gero eta nabarmenagoa dela, adibidez, gazteen lonjak edo lokalak erabili eta mantentzeari buruzko ordenantzetako neurrien bidez, edo espazio publikoaren erabilera mugatuz, zuzenean ez denean elkartegintzara eta gazteriaren partaidetzara bideratutako funts publikoak murriztuz edo kenduz, edo genero rola betikotzen dituzten partaidetza eta aisialdi ereduak babestuz eta, bere eraketagatik bakarrik, gazteriaren zati bat baztertzen dute.

Horrelako praktikak salatu behar dira, eta gogorarazi behar da aisialdia, kultura, kirola eta partaidetza alternatiboak eta pertsona gazteak ere gure hirien eta herrien partaide garena, eta ezin garena haietatik baztertuak izan, ezta arazo sortzailatzat joak izan ere. Gure espazioa eta protagonismoa aldarrikatu behar ditugu, gure kultur eta aisialdi alternatiboen proposamenak, hiriko bizitzako eragile aktibo bihurtuz, eta ez elementu pasibo edo subjektu kontsumitzaile huts.

Aldi berean, espazio horiek emakumeentzako eroso eginez eraiki behar ditugu, jokaera eta eraso sexistetatik libre geratzen direla bermatuz.

Horri gehituko diogu kirola aldarrikatu behar dugula gorputz, gizarte eta kultura jarduera gisa, haren helburua izanik bizi kalitatea hobetzea, talde edo inklusio balioetan sakontzea, herri kirolak iraunarazten eta bultzatzen lan egitea, eta kirol ariketak normaltzeko aurreratzea, betiere egungo kirolaren muturreko lehiakortasun eredutik, elitizaziotik eta maskulinizaziotik urrun.

Puntu honetan, garrantzizkoa da nabarmentzea espazio publikoak egun bizi duen krisia: agerian geratzen da haren absentsia edo abandonua edo degradazioa, pribatizazioa edo bazterketarako joera. Espazio publiko indartsurik gabe, hiria desegin egiten da, demokrazia gaiztotu, espazio publikoa gizartearen integratzailea baita, fisikoki eta sinbolikoki artikulatzen du. Beraz, norbanakoen eta taldearen askatasunak aurrerarazten dituen prozesu historikoa eten egiten da, edo atzeraka egiten, desparekotasunak ez dira gehiago murrizten, eta bereizkeriak eta zikoizkeriak, egoismoak eta bazterketak galarazi egiten dute herritarren elkartasun zein tolerantzia balioen nagusitza.

Gazteei, gero eta gehiago, lokal pribatuetan aterpetzera behartzen zaie (lonjak, txokoak, lokalak...) eta, era horretan, hiri "maketatua"ren eremuan integratzen dira. Bertan, onenera, herritarrak hiriko "garnizio"tzat jotzen dira, baina oro har, herritarrak espazio publikoaren eragile protagonista izatetik baztertuta geratzen dira.

Hiritartze eredu hori egungo kapitalismo globalizatuak berezko dituen interesek bat egitearen produktua da: finantza kapital hegazkorra, epe laburreko irabaziaren bilatzailea, tokiko finantza sistemarekin uztartuta, urbanizazio lausoaren eta higiezinaren boomaren aldeko legedia, eta lurzoruaren jabetza pribatua, eragile pribatuek espekulazio prozesutik eskuratutako plusbalioez jabetuz.

Horren aurrean, gazteriak protagonismoa berreskuratu behar du, eta espazio publikoa berreskuratzeko abangoardia bihurtu: borrokatzea gizarte (hiritan ghettorik ez), ekonomia (espazio publikoari bai, ez pribatuari), kultura eta politika

eskubideen alde. Laburbilduz, gazteek lonjak utzi eta parkeak zein plazak berreskuratzen hasteko eskubideak eta baldintzak bermatzea, merkatu logikaz kanpoko espazio komunak eraikitzeko.

Erakunde publikoen partaidetza

Nork bere gizarte eta kultura partaidetza eta ekintzalaritza antolatua ez ezik, gazteek erakunde publikoetan parte hartzeko espazioak aldarrikatu behar ditugu. Askotariko gazte elkarte eta erakundeetan espazioak izan behar ditugu, lankidetzaz sareak sortu ahal izateko eta eragiten dituzten gaiei buruzko iritziak elkartrukatu, landu eta eztabaidatzeko; era horretan, atera egingo gara erakunde publikoek gazteentzako politikak gazteak gabe egiteko duten joeratik.

Horrenbestez, beharrezkoa da Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) berreskuratzea, autonomia erkidego barruko partaidetza espazio izan dadin, eta bertatik partaidetzaren kontra doazen funtzionatzeko dinamikak eta formak ezabatu; trukean, haren lana zabaldu eta garatu nahi dugu egun bertan ordezkaritza ez duten Euskadiko gazteriako beste sektore asko ere kontuan hartzeko.

Feminismoa

Agiri honetan bertan esan dugun bezala, arreta berezia jarri behar diegu babesgabetasuna duten talde jakin batzuei, are gehiago esplotazioak alde bakarretik baino gehiagotik erasaten dienean; adibidez, emakume gazteek, gazteak izatearren aurre egin beharreko ohiko arazoez gain, sexua dela eta ere topatzen dituzte.

Izan ere, oraindik ere gazteen artean aurreko belaunaldietan bezala dago soldatako aldea edo produkzio eta ugalketa lanaren arteko dikotomia; hain zuzen, genero rola eraikitze eta zehazte bidean diren adinetan.

Horrenbestez, nahitaezkoztat jotzen dugu ikuspegi feministaz lan egitea, hala erakundearen barruan, Emakume arloko lankidetzan eta lanean sakonduz, nola kanpokoan, gazte ikuspegitik mugimendu feministaren lana sendotuz eta gazte mugimenduaren askotariko fronteetan emakumeei eragiten dieten berezitasunak nabarmenduz.

Halaber, luzera begira, adin gazteenei buruz lan egin behar dugu, baterako hezkuntza gure hezkuntza sistemak garatu beharreko oinarritzko printzipiotzat eta erremintatzat hartuta, hezkuntza horren bitartez emakumeen desparekotasuna gaiztotzen duten rola eta esteretipoak hausteko.

Gazteriaren kriminalizazioa

Bukatzeko, Ezker Anitza - Izquierda Unidak antolatutako gazteriak jasaten duen kriminalizazio gero eta handiagoa salatu behar du: hasi LOMCEren eta errebaliden kontra mobilizatu ginen ikasleetatik eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko lagunetaraino, “autoritateari eraso egitea” leporatuta auzibidean jarrita, errektoretzaren aurreko protesta baketsu batengatik, eta zer esan beren autogestio proiektuetan parte hartzen duten lagunez: Gaztetxeak, Gazte Asanbladak, eta botereari baketsu aurre egiten dioten gainerako mugimendu alternatiboak, gutxi

batzuk aipatzearren. Sistemaren eta kapitalari atxikitako hedabide eta aparatu ideologikoen gero eta kriminalizazio handiagoa jasaten dugu.

Ezker Anitza - Izquierda Unidak borroka egin behar du kriminalizazio horren kontra, hura salatu, baita gazteak tratatzeko jokabide paternalista ere; ideia sorta kolektibotik kanporatu behar dugu “gaztea zara, eta gizonduko zara” bezalako esaldi gorrotagarriak, erakusten baitute patriarkatuak gutxiesten gaituela, eta bigarren mailako herritar bihurtzen. Deskribatzen ari garen elementuak guztiak zehazki hobetzeko borrokak ez du batere zentzurik ez bagara gai sustrai patriarkalaren kontra borrokatzeko, hark sortzen baitu inspirazio ideologikoa, eta legitimatu, gazteak eta beste talde batzuk, emakumeak edo pertsona etorkinak adibidez, besteetatik maila bat beherago egotea, eta bigarren edo hirugarren mailako herritartasuna edukitzea (edo pairatzea). Orain borrokatzen badugu, gurea da etorkizuna.

Osasuna

Osasuna eskubide bat da, ez salgai bat eta, beraz, osasun sistema publiko eta unibertsala defendatzen dugu. Osasun sistemaren privatizazioaren kontra gaude, eta osasun sistema publikoa, unibertsala, integrala, solidarioa eta kalitatezkoa defendatzen dugu. Horrenbestez, 15/97 eta 16/2012 legeak bertan behera uztea defendatzen dugu, horrela bakarrik segurta baititzakegu osasun arreta unibertsala, haren prestazioen zuzentasuna, privatizazioa leheneratzea eta erabilera momentuko doakotasuna, berrordainketarik edo ordainketa partekaturik gabea.

Ide horretatik, garrantzitsua deritzogu osasun sektoreari arlo publikoan eusteari, eta sektore publiko horretan privatizatutako zerbitzuak berriz sartzeari: titularitate publikoa, finantzaketa publikoa, kudeaketa publikoa eta horniketa publikoa. Finantzaketa nahi dugu administrazio publikoen aurrekontuen bitartez, zerga bide zuzena baliatuz, eta ez zeharkakoa, eta ez dugu nahi ordainketa partekaturik edozein dela ere.

Ezker Anitza – IUrentzat, garrantzizkoa da lehen mailako arreta sustatzearen eta herritar guztiei zabaltzearen alde egitea eta,aldi berean, ezin bestekoa da Osasun Sistema Publikoaren kudeaketa demokratikoa bermatzea.

Gainera, iruditzen zaigu ezin bestekoa dela zerbitzu eta eskubide aukera zabaltzea, sexu eta ugaltze osasuna sartzeari, baita haurdunaldiaren etendura, zainketa aringarriak eta minaren tratamendua eta heriotza duinerako eskubidea ere.

Beharrezkoa da, bestalde, Osakidetzaren efizientzia eta kalitatea segurtatzea, eraginkortasuna, efizientzia eta kalitatea hobetzen duten neurriak ezarriz, baliabideen erabilerearen hobekuntza, langileei pizgarriak emateko eta haien sustapen profesionalerako eta osasun arloko gastua arrazionalizatzeko politikak, kontuan hartuz Osakidetzak, egun, osasuneko inbertsio publikoa handitzea behar duela, askitasun finantzarioa lortu arte, baita lehen mailako arretako eta Osasun Publikoko inbertsioa areagotzea lehenestea ere. Printzipio horri esker, gaitzen prebentzioan aurrera dezakegu, baita goiz detektatzen eta, beraz, tratamenduan ere, akutu bihurtzea eragotziz eta tratamenduaren kostu txikiagoa.

Alde horretatik, beharrezkoa da osasun mapak euskal errealitatearekin bat etortzea, kontuan hartuz artean ingurune batzuetan biztanleriaren osaera oso

barreiatua edo oso trinkoa dela eta gauzak birplanteatu behar direla, lehen mailako arreta onena emateko.

Gainera, farmakoen gastu handiari aurre egin behar zaio (465 milioitik gora 2016an), gastua hoberenduz. Horretarako, farmakoen politika bat garatu behar da, estatuaren banatzaile publikoa sortu, ikerketa biomediko eta farmazeutikoko politika publiko bat garatuz eta Farmakoen Industria Publiko bat sortuz, sistema publikoa hornitzeko eta farmakoen enpresa handien eta patenteen interes ilunetatik bazterrera iker dezan.

Printzipio horiei lotuz, ezin bestekoa da osasun mapa berritik sortutako osasun zentro berriek kudeaketa zuzena izatea eta, pixkanaka, gaurdaino privatizatutako arloak eta zerbitzuak berreskuratzen joatea, adibidez, Tolosan, egun zentro publiko bat ez daukan eskualde bakarra baita. Halaber, zerbitzua emateko modua hobetu behar da, Osakidetza kudeaketa txarraren ondoriozko gainkarga dela eta osasun sistema pribatura bideratu behar ez izateko; izan ere, gainera, diruzaintza publikoarentzat gastu handia da.

Ezker Anitza – IUk konpromisoa hartzen du eutanasia zuzen eta aktibo eta heriotza duinerako eskubidearen alde egiteko. Arrazoi hori bera dela eta, uko egiten dio terapia garestitzeari, eta pazientearen autonomia printzipioa defendatzen du funtsezko balioztat, bizitzako fase guztietan, batez ere hiltzeko prozesuan.

Bukatzeko, beharrezkoa da giza baliabideen politika bat aurrera eramatea, osasuneko langileen egoera duintzeko, Osasun Sistema Publikoa behar tamainako plantillaz, heziketa egokiz, ibilbide profesionalez hornitzeko eta galdutako eskubideak berreskuratzeke.

Feminismoa

Azken urteotan, eskubide eta askatasunen galera orokorra gertatu da, eta Ongizate Estatua deitutakoaren gezurrak nabarmen utzi ditu. Gizarte bakea asaldatuta dabil, langabezia, prekaritatea eta pobrezia etxe askotara heldu direlako; egoera honetatik onean atera daitekeen gauza bakarra da gizartea zerbait ere esnatu dela, eta gero eta kritikoagoa eta solidarioagoa da.

Eskubideen atzerakada areagotu egin da biztanleria talde babesgabeenen artean: talde horretan gaude emakumeak, hamarkadetan lan munduan sartu bagara ere, nahiz eta horrek eratorritako arazoak ekarri, gure sexuaren ondorioz: zaila da lan munduan sartzea, erraz ateratzea, lanaldi partzialak, soldatako aldea, eta ardura profesionaleko postuak eskuratzeko zailtasuna, besteak beste. Atzeraldi ekonomikoarekin batera, zirkunstantzia horiek gizartera pasa dira, baina genero arazoez bere horretan dira, eta areagotu dira.

Beraz, baldintza berdinetan arlo publikoan parte hartzeko orduan, mugak daude, zuzenean edo zeharka, formalki edo materialki, esleitutako rolerik emakumeak etxera bultzatzen baitituzte eta, bestetik, eragozpen gogorrak jartzen zaizkio emakumeek erabaki gune eta botere esplizituko guneetan postu ikusgarri eta erantzukizunezkoak betetzeari.

Horrenbestez, demokrazia parekideak esan nahi du ez soilik biztanleriaren % 50 izatearren horrenbesteko ordezkartza izatea logikoa denez (orain mugatua baitu),

errealitate bat ikusgarri egitea ere bada eta, gainera, gizarte justizia bat egiteko modu bat adierazten du, zeharka emakumeei kendutako eskubideak esleitzen baitizkio.

Gure lana egon behar da feminismo burgesa gainditzera bideratuta, feminismoa bete-betean gure sozialismoa eraikitzekeo estrategian sartzeko, analisi tresnak aplikatuz eta, langile borroka orokorrean, patriarkatuaren gai zehatzari ideologia iraultzailearen borroka gehituz.

Politika neoliberalen kontra ekintza batasunera deitu behar ditugu emakume erakunde guztiak eta, garatzean, borroka hori, gure ekarpenen bitartez, pixkanaka kapitalismoaren eta patriarkatuaren kontrakoa bilakatuko da, baita kapitalismo eta patriarkatuaren kontrako krisiarentzako gizarte alternatibaren aldekoa ere. Emakumeak al bait arlo guztietatik antolatu eta mobilizatzea lehenetsi behar dugu: emakume elkarteak: feministak, etorkinak, gazteak, sindikatuak, auzo elkarteak, familiakoak, solidarioak... Era horretan, langile klasearen % 50 ahaldunduko dugu: emakumeak.

Ezker Anitzeko emakume eta gizonen kaleak aldarrikatzen ditugu langile klase garen aldetik, emakumeen dibertsitatearen alde garrasi egiten dugu, emakumezko guztientzako eskubideen alde eta inoren diskriminazioaren kontra, edozein jatorri, aukera, gaitasun eta adin dutela ere. Goazen kalera, ez daudenak eta egon ezin direnak gogora ekartzera. Goazen kalera, gure herriak zeharkatzen dituen matxismo uhinaren kontra.

Enplegua eta baterako ardura

Emakumeak dira, artean ere, ordaindu gabeko lan denborari lotuen daudenak, eta horrek ondorio kaltegarriak ditu haien bizi kalitatean. Denboraren erabilera banatu horren erabilera areagotu egin da austeritate politikak eta ume zainketa eta mendekotasun arreta, osasun publiko eta hezkuntza publikora bideratutako zerbitzu publikoetako murrizketak direla eta.

Genero parekotasuna errealia izan dadin, ezin bestekoa da generoen arabera bereizkeria edozein arlotan borrokatzea, emakume eta gizonen arteko soldatuko aldea ezabatuzetik hasiz. Beharrezkoa da laneko eta curriculumeko bereizkeriaren eta lan sektore feminizatuenen prekarizazioaren kontrako borroka plan bat. Alde horretatik, ezin bestekoa gertatzen da zainketa lanei lotutako lanak baliaraztea, ordainduta dela edo ez, ezin bestekoak baitira gure gizartearen biziraupenerako eta ongizaterako, etekin ekonomikoa eta ez pertsonen ongizatea balioztatzen duen mundu honi erantzun ahal izateko.

Era berean, beharrezkoa da gure lan zentroetan berdintasun planak exijitzea eta, erakunde publikoen kasuan, plan horiek biltzen ez dituzten zerbitzu publikoak kudeatzeko enpresak kontratatzea salatzea.

Bestalde, emakumeak lanaldi osoz lan egin ahal izatea exijitu behar dugu, etxeko erantzunkidetzan aurreratzen duten politikak garatuz. Aldi berean, baimen besterenezinak ezarri behar dira guraso bakoitzarentzat jaiotze edota adopzio bakoitzean eta, pixkanaka, iraupen berdina izan beharko dute, hori baita seme-alaben hazkuntzan eta zainketan erabateko erantzukidetzara arautzeko bide bakarra.

Pertsonen zainketa eta arretei buruzko zerbitzu publikoetako murrizketek, hezkuntzan zein osasun publikoan, soldaten jaitsierak eta enplegu galerak emakumeen bizi baldintzak eta eskubideak kaltetu dituzte batez ere, eragin berezia edukiz familia erantzukizunak dituzten emakumeen, emakumezko etorkinen zein gazteen eta 65 urtez gorako emakumezkoen baitan.

Ordaindutako eta ez ordaindutako lanean, rol eta estereotipo sexistek bere horretan diraute askotariko hezkuntza formal eta ez formaleko erakundeen bitartez, adibidez, hedabideak, publizitate sexista, zabor telebista-saioak eta telenobelak.

Aurrekontuko murrizketek lan erreformak ekarri zizkiguten. Batez ere emakumeek betetzen duten lanaren prekarizazioak eta emakumezkoen langabezia tasa altuek desparekotasuna errazten dute. Zenbakiak erakusten dutenez, gogoz kontrako lanaldi murrizketek, soldaten prekarizazioak, kaleratzeak eta kontratazioa urritzeak batez ere emakumei eragin die. Gizonek baino ehuneko ia hiru puntutik gorako langabezia tasa dute, eta emakumei lana prekarizatu egin zaie lanaldi malguagoen, lanaldi partzialen, aldi baterako kontratuen eta soldatiko aldea handitzearen bidez.

Horrek esan nahi du emakumeek gizonek baino gutxiago irabazten dutela lan berean, eta haien independentzia ekonomikoa kaltetuta ateratzen da haien bizien azken egun arte, lan egindako aldiak eta, gero, erretiroan gutxiago kobratu baitute. Horrenbestez, babesgabetasun handiagoa dute, eta pobrezia ertzean kokatzen ditu, baita enplegua dutenean ere.

Batez ere emakumeek betetako lanaren prekarizazioak, enplegu publikoaren urriak (hain zuzen, horrek ematen die modua emakumei sarbide parekide bermatua duen enplegu finkoa lortzeko) eta emakumezkoen langabezia tasa altuak gero eta gehiago errazten dute desparekotasuna.

Patriarkatua kapitalaren zerbitzuko tresna da, eta emakumeak zapaltzen ditu krisia dela eta galdutako irabazpen tasa berreskuratzeko, ugalketa lanera bakartuz eta lan merkatuan gizonena baino baldintza askoz okerragoetan sartuz (eta horri ugalketa lanaren zama gehitu behar zaio: lanaldi bikoitza).

Patriarkatuaren kontrako borroka mugimendu feministak jokatzeko nahi dugun borrokarekin bat etorri behar da gizarte liskarreko momentu hauetan: batetik, neoliberalismoa instituzionalizatzeko ahalegina dago eta, bestetik, demokrazia sozial eta ekonomiko baterantz aurreratu nahi dugunak gaude, alegia, erabakigarria da sistemarekin bukatzeko.

Erantzukizun postuetako berdintasuna

Kristalezko sabaia delakoa ikusten ez den oztopoa da, zeharkatzeko zaila, eta aditzera ematen du ibilbide profesionalean, emakume bat, prestakuntza eta eskarmentua eduki arren, tratatuta uzten dutela, lan, lanbide edo sektoreko egiturari. Askotan, bat dator ama izatea erabakitzen duen bizi etaparekin. Gizarteko erru sentimenduak eta lanaldi bikoitzek zaildu egiten dute sustapen profesionala gizonezkoen enpresa mundua eratuta dagoen bezala, baina baita mundu instituzionala eta ordezkartzakoa ere.

Hauteskunde legea aldatzea hautes zerrendek benetan emakumeen % 50 izan dezaten, eta horretarako mekanismoak jartzea, erakunde publikoetan benetako parekotasuna ezartzeko. Gizarte eta hezkuntzan aldaketak bultzatzea, benetan berdintasun legean gizon eta emakumeek gizarte, ekonomia eta politikako askotariko arloetan presentzia orekatua izateari buruzko printzipioak betetzea hauspotzeko. Ezker Anitza – IUk konpromisoa hartu du hauteskunde zerrendetan parekotasuna bultzatzeko, ordezkaritza postuetan genero berdintasuna lortze aldera eta erantzukizun politikoko postuetan emakumeen presentzia sustatze aldera.

Amatasun subrogatua

Bestalde, amatasun subrogatua debekatzea ere nahi dugu, patriarkatuaren beste esplotazio mota bat baita, era horretan emakumearen gorputza menderatuz. Horregatik, Ezker Anitza – IUk gure jarrera argi eta garbi utzi behar dugu, egun, gizarteak normaldu nahi duen praktika delako, emakumeak pairatu behar duen esplotazio bikoitzari ezikusia eginez”.

Indarkeria matxistaren kontra borrokatu

Herrialdeak bizi duen krisi egoerak, emakumeak mendeko eta prekarioagoak bihurtu ez ezik, emakumeen kontrako indarkeria areagotzen du (nahiz eta egia den inoiz ez dela ezabatua izan). Terrorismo matxistak Justiziako murrizketak izan ditu bere alde, langile eta baliabideen murrizketak izandako indarkeria matxistan espezializatutako epaitegiek ezin baitiote aurre egin izurrite horrek dakarren desafioari. Berdin esan daiteke Gizarte Zerbitzuez, baliabide eta langileetan horzkada latzak jasandakoa, haien arreta jasotzen duten herritarren beharrianak handitzen joan arren. Sistemak hainbeste iragarritako neurrietako bat ere ez da izan eraginkorra terrorismo matxistaren kontra, eta biktimak, hilak edo ez, emakumeak eta haurrak, hamarka pilatzen dira urtero, boterean inork izurri odoltsu eta izugarri horren kontrako hitzarmenak indarrean jartzea pentsatu gabe.

Lan prekarietateak eta zainketa kargako igoeraz haraindi, indarkeria matxista areagotu egin da arlo guztietan, hala ingurune pribatuetan, nola publikoetan. Gainera, diskurtso neomatxistak betiko desparekotasuna zuritzen du, baina jarrera eta adierazpen berriak baliatuz.

Indarkeria matxistak desparekotasunaren adierazpen bortitza dira, gure gizarteak bizi duen emakumeen giza eskubideen urraketa larriena. Emakumeen kontrako indarkeriak (feminizidioek eta haurren hilketek) ia egunero astintzen gaitu. Terrorismo deitzen diogu ideia politiko bat izuaren bitartez eta indarkeria baliatuz lortzeko ahaleginari eta, orduan, terrorismo matxista dei diezaiokegu ere emakumeen kontra erabilitako indarkeriari, kasu honetan egoera bat iraultzea bilatzen ez duen arren, betikotzea baizik. Emakumeek askotariko arloetan bizi dituzten indarkeriak desparekotasunari men egiten dion gizartean gertatzen dira, eta emakumeei sinesgarritasuna eta agintaritza kentzen die. Matxismoak emakumeak baliogabetzen ditu, haien gorputzak gauzaki bihurtu, eta haien erabakiak gutxietsi. Halaber, eraso horiek guztiz bat egiten dute nagusi den gizonetzotasunarekin bat ez datozen pertsonen jasaten dutenekin. Matxismoak hil egiten du eta, beraz, Estatu gaitzat hartu behar da.

Indarkeria matxista baterako hezkuntzaren bitartez eragotzi behar da, gatazkak bakez ebazten dituen kultura bati erreparatuz, enpatia sustatuz eta autoestimatu orekatu bat garatuz. Jendarteratzen garenetik genero aurreiritziak desagertzea bultzatzen duten printzipioak dira.

Emakumeen kontrako indarkeria estrukturalak eta gizarte indarkeriak dituzten askotariko adierazpideak ezabatzeke borrokatu behar dugu: gorputz erasoak, psikologia, sexu edo ekonomia eta gizarte-arloko indarkeria, etab. Guk giza eskubideen urraketatzat jotzen dugu indarkeria hori.

Sexu esplotazioari dagokionez, prostituzioa gizarte patriarkalaren adierazpide basatienetako bat den neurrian eta klase, arraza, legezko egoera eta abarregatik emakume babesgabeen gehien jasaten duten neurrian, Ezker Anitza – IUk haren abolizioa defendatzen du. Halaber, prostituzio iragarkiak eta publizitatea debekatzearen alde gaude, emakumea salgai bihurtzen baitute, eta mafiak ugaltzea errazten, emakumearen irudi umiliagarria adierazten.

Patriarkatuak ez du produkzio eta ugalketa inguruneetan bakarrik diskriminatzen; aldiz, horiei zuzenean lotuta ez dauden askoz dimentsio gehiago ere baditu. Prostituzioa eta pertsona salerosketa, hedabideetako indarkeria sinbolikoa, elkarrekin bizi ez diren bikote gazteen arteko indarkeria eta desparekotasuna lanean, kalean. Gizonen sexu kontsumoak egin zuen milaka emakume eta neskatilaren sexu esplotazioa sistema kapitalista isilka erreproduzitzeko oinarriko zutabe bihurtzea. Prostituzioko emakumeen % 99 sexu trafikoko sareen biktimak dira.

Prostituzioa salatu behar dugu, ezin baita lanbidetzat jo, emakumeen beste zapalketa bitarteko zital bat baizik, non gorputza bere lan indarraren kaltetan saltzen duen. Prostituzioko emakume eta gizonak jasan behar dutena beste testuinguru batzuetan sexu abusu eta bortxaketa errepikatuaren definiziotzat onartuko lukete. Prostituzio legitimoa arautzeak harreman patriarkalak zilegi egiten ditu zeharka: gizonen eta emakumeen arteko harreman asimetrikoen eredu bat onartzearen parekoa da, emakumeak mendean eta lotuta izateko sistema bat ezarri eta antolatzea, emakumeen kontrol patriarkalaren eta sexu uztarpearen euskarri bihurtzea, eta horrek ondorio kaltegarria du ez bakarrik prostituzioan dabilzan emakume eta neskatiletan, baizik eta emakumeen multzoaren gain, talde gisa; izan ere, emakumeen definizio patriarkalak berretsi eta sendotu egiten ditu, non haien funtzioa gizonen sexu zerbitzura egotea izango litzatekeen. Bestalde, indarkeria mota hori lanbide bihurtzen bada, ezingo dugu berdintasunean batera hezi. Horrenbestez, gure jarrera prostituzioaren abolizioa da, bidezko sistema ekonomikoa proposatuz, eta iraunkorra, berdintasunez bi sexuak bilduz. Mafiak jazarri eta haien ezarpena ez erraztea, gizon horien mentalitatea eraldatzea, ez bakarrik gogoa kentzen dizkien isunen bitartez, hezkuntzaren bitartez baizik, hedabideek ematen duten emakumeen sexu objektu irudia aldatzera eta gizonak emozioz zein bizitzan erantzunkide bihurtzera behartzeko. Haien patua aldatzeko, emakumeen eskubideek bigarren mailako eskubide izateari utzi behar diote, eta benetako giza eskubide izatera pasa behar dira.

Gure ustez, gizarte parekide batek emakumezkotasun eta gizonzkotasun eredu berriak behar ditu, ohituraz esleitu diren rolet pertsonen garapen emozionala eta

soziala zapuztu ez ditzaten. Berdintasunean hezteak esan nahi du errespetuan eta emakumeen eta gizonen arteko begirunean eta berdintasunean oinarritutako sexualitatea garatzea erraztea, baita gatazkak indarkeriarik gabe ebazten ikastea, berdintasun eta zuzentasun balioetan irakastea ere. Ezin da onartu hezkuntza arloan gizarte heteropatriarkaleko rol tradizionalak betikotzen dituen eredu sexistarik. Joko ez sexistak bermatu behar dira, emakumeen irudi eta eskubideen kontra jotzen duen publizitatea gaitzetsi, eta emakumeek kultura, zientzia, kirol eta abarretan egindako ekarpenak irmo aldarrikatu.

Alde horretatik, Ezker Anitza – IUk LOMCEk ezabatutako berdintasunerako eta genero indarkeriaren kontrako hezkuntza berreskuratzea exijitzen dugu, berdintasunaren kultura irakastea baita desparekotasunarekin amaitzeko bide nagusia.

Sexu eta ugalketa eskubideak

Ikuspegi politiko batetik, PPren eskuin muturreko arima nazional katolikoak gobernua Berdintasun Ministerioa kentzera eramanez, eta abortu eskubidea erasotzera, amatasunari buruz erabakitzea bezalako emakumearen oinarritzko eskubide bat; izan ere, osasunerako arriskua da, bereziki baliabide ekonomiko gutxien dituzten emakumeentzat, amatasuna pribatizatzen delako, eta oinarritzko eskubide baten askatasuna eta autonomia kaltetuz, gazte haurdunak zaintzapean jarritz.

Ezker Anitza – IU, pertsonen sexu eta ugalketa eskubideak defendatzen ditugu, baita amatasun/aitatasun librearen ere, metodo antisorgailuak eskuratzeko modua, haurdunaldiaren etendura boluntarioa, baita beharrezkoak diren ugalketa teknikak ere. Horiek eta beste prestazio batzuk modu unibertsalean eta doan eskaini behar dira aukeran estatuko osasun sistemako zerbitzuetan. Horregatik, Haurdunaldia Borondatez Geldiarazteko Kode Penala erabat despenalizatzea exijitzen dugu, Haur. Bor. Geldiarazteko eskubidearen aitortzearen abiatuz eta emakumeen erabaki librean oinarrituz, eta lehen 24 asteetan Osasun Publikoan egin ahal izatea bermatzea. Gainera, haurdunaldiko edozein unetan bermatu behar da emakumeen bizitzarako arriskua bada. Aldi berean, abortu eskubidea 16tik 18 urte arteko gazteentzat bermatu behar da.

Sexu dibertsitatea

Ezker Anitza – IUren iritziz, ezin da onartu edo arautu ezein genero, etnia, kultura, nazionalitate edo sexu orientazio edo genero identitate arrazoiengatik diskriminaziorik egitea. Gure zeregina da lortutako legezko berdintasuna gizartera eta errealitatera eramatea eta, horretarako, beharrezkoa da gure gizarteko askotariko arloetan neurri sorta bat hartzea.

LGTBI+ kolektiboa ustezko berdintasunaren ameskeria batean bizi da, eraso homofoboak egunero gertatzen baitira tamalez, eta gorroto delituak dira ohikoenak. Indarkeria hori ikusgai egin behar da haren aurrean erantzuteko, kaletik zein erakunde publikoetatik. Erasoak salatzeke ekintza protokoloak sortu behar ditugu, eta agenda politikoan desparekotasuna betikotzen duen izurrite hori jarri eta, aldi berean, ezin bestekoa da diskriminazio gertaeren eta gorroto delituen datu

bilketa egitea, polizia zerbitzuetarako eta gorroto delituetarako protokoloa bultzatzea, 2015eko urtarrilean estatu osorako onartua.

Era berean, ezin bestekoa da Segurtasun Gorputz eta Indarrak diskriminazio edota eraso kasuetan LGTBI+ kolektiboei arreta emateko heztea, protokolo berezien bitartez.

Sexu orientazio arrazoiengatiko diskriminazioari dagokionez, beharrezkoa da hitzarmen kolektiboetan LGTBI+ ikuspegi bat derrigorrez sartzeari, eta berdintasun planak enpresetan. Halaber, lan ingurunean nor bere sexu orientazio / genero identitateerako duen eskubidea berretsi behar da, eta diskriminazio egoeren kontrako jazarpen eraginkorra eta zigor administratiboak ezartzea.

Guk apustu egiten dugu lehen hezkuntzatik Giza Eskubideei buruzko ikasgaia eta Sexualitate eta Sexu Aniztasunari buruzko beste batzuk sartzearen alde. "Hiritartasunerako hezkuntza" ikasgaia berreskuratzea ere proposatzen dugu eta, bertan, uneko familia aniztasuna erakustea, askotariko sexu orientazioak eta genero identitateak zein adierazpideak, baita genero eta sexu orientazio arrazoiengatiko diskriminazioaren kontra dauden legeak eta araudiak ere.

Eskola ingurunean, halaber, beharrezkoa da eskola jazarpen LGTBI+fobikoaren kontrako protokoloak garatzea, ikastetxeetako zuzendaritzek eta irakasleek bere lehen jazarpen adierazpenen aurrean horiek detektatu eta eskura hartu ahal izan dezaten. Halaber, ikastetxeek zerbitzu psikopedagogiko bat izan behar dute, jazarriak izan diren nerabeei laguntza emateko. Irakasleen prestakuntza espezifiko eta sexu aniztasunean laguntzeko eta LGTBI+fobiaren kontrako kanpaina pedagogikoak ere ezin bestekoak dira protokoloa garatzeko orduan.

Modu berean, adin txikiko transexualen arretarako protokoloak garatu behar dira, bertan bilduz: irakasleen prestakuntza, ikastetxeko instalazioak genero identitatearen arabera erabiltzea eta, irakaskuntzako eta eskolaz kanpoko jarduera guztietan, baita datu administratiboetan ere, adin txikikoak aukeratutako izena erabiltzea.

Osasun arreta unibertuala eta doakoa eman behar zaie transexualizazio prozesua libreki hastea erabakitako pertsona transexualei. Horrek osasun protokolo inklusiboak ontzea eskatzen du, ez araudi heteroaren arabekoak.

Lagundutako ugalketari dagokionez, bermatu egin behar zaie beharrezko duten emakume guztiei, sexu orientazioa edozein dutela ere. Egun, emakume lesbianak eta bisexualak bazter geratzen dira lagundutako ugalketa tratamenduetatik, eta hori ezin da onartu guk defendatzen dugun osasun publiko eta unibertsaleko erudian, bertan ez baitu tokirik bazterketak, edozein arrazoi dela ere.

Ezin bestekoa da osasun sistema publikoak emandako osasun arreta hura hartzen duen pertsonaren generoaren identitatearekin bat etortzea.

Iraunkortasuna eta Ingurumena

Ingurumena izan behar da Ezker Anitza – IUk hurrengo urteetan izango duen politiketarako zutarrietako bat, eta politika hori erakundearen gainerako politikekin zeharkakoa izan behar da. Ingurumen politika Arloetako bakoitzean egon behar da,

ezin bestekoa baita kapitalismoak dakarren natur baliabideen eredu kontsumistatik urrunduko gaituen gizarte aldaketa bidezko eta positibo baterako.

Duela oso gutxi arte prebentzio izaera zuten neurriak orain presazkoak dira. Beharrezkoa da lau ekintza esparru handi aldarrikatzea:

Berotegi efektuko gas igoerpenak murriztu, zenbatu daitezkeen helburuak dituzten urteko planen bitartez, beroketa globala eragozteko eta arnasten dugun airearen kalitatea hobetzeko.

Gainerako hondakinak eta giza jarduerak sortutako isurpenak murriztu:

hiri hondakin solidoen kasuan, errausketaz bestelako teknologiak eta alternatibak bultzatuz, ur eta lurreko isurpenak kenduz eta gure eguneroko bizitzan erabilitako produktuak eta materialak berrerabiltzea eta birziklatzea sustatuz.

Energia efizientzia kudeatu, elektrizitate, ur eta gasaren erabilera hoberentzeko, energia berriztagarriak sustatzeko, garraioa arrazionalizatzeko eta, era horretan, kontsumo horiei lotutako kostu ekonomia murrizteko. Arlo honetan, guztiz beharrezkoa da energia nuklearra desagertzea defendatzea eta Garoñaren moduko zentral nuklearrak ixtea.

Mugikortasuna bestela kudeatu, hiriguneetan bizikletaren alde apustu eginez eta benetan lurraldea egituratzen dituzten garraio kolektiboko azpiegituren eta plataformen beharra planteatuz. Beraz, uko egiten diegu AHTren planteamenduari eta (Bilboren) hegoaldeko saihezbidearen moduko alferrikako azpiegiturei.

Aurre egitea egokitu zaigun garai berri honetan, iraunkorki ezarri zaigun krisialdian, eztabaida batzuk, adibidez, kontsumo eredu eta produkzio eredu ere, ezin bestekoak dira ezkertiar politiketan, baita hertsiki lotuta egon ere gure natur ingurunearen begiruneari ere; gure politikak adierazi behar du hala kontsumo eredu berri bat, nola produkzio eredu berri bat, natur baliabideen harrapaketari heltzen ez diona eta, horretarako, ekonomia zirkularrari edo beherapenari buruzko eztabaidek, besteak beste, nabarmenduak behar dute gure agendan.

Gogoeta horren fruitu, austeritatearen eta askitasunaren aldeko apustu irmoa egin dugu, baina ez murrizketak direla ulertuta, baizik eta bizimodu soila, inpaktu txikiko bizitza zoriotsua bilatzea. Gutxiagorekin hobeto bizitzeko jarrera politiko bat dugu.

Alde horretatik, ekonomia, elikadura eta ekologiaren krisian den mundu honetan, baliabide mugatuetako mundu mugatua baita, ezin bestekoa da beherapenaren gaiari heltzea, alegia, natur baliabideen (lehengaien zein energiaren) kontsumoaren beherapena, baita hondakin igoerpenenari eta berotegi efektuko gasenari ere eta, aldi berean, zerbitzu publikoak eta giza garapena sortu eta indartzearen inguruan haztea, alegia, iraunkortasunean oinarritutako sistema bat sendotzea.

Horretarako, ezin bestekoa da egin diren natur baliabide estrategikoen pribatizazio prozesuak alderantzizkatzea: ura, energia, airea eta lurzorua ondasun publikoak direlako ikuspegia dugu, eta horiek salgai bihurtzea eragotzi behar dela. Oraingo eta etorkizuneko gizarte osoaren ondasun komunak dira, eta ezin dira salgai bihurtu.

Gehiegizko ustiaketaren eta aldaketaren aldeko borrokaren erakusgarri, Barakaldoko kasua dugu, 2008tik aurrera, giza kontsumorako iturrietan Lindane kantitate arriskutsuak detektatu ondoren. Pestizida zahar horretatik eratorritako produktu batek gure akuiferoak kutsatu ditu. "LINDANE"ren deribatu hori oso kutsagarria da, eta OMEk minbizi eragileztat jo du, baina gure erkidegoko hainbat akuiferotan murgilduta dago, adibidez, Gipuzkoako ibai batzuetan, Arabako Zadorran eta Barakaldoko Oiola urtegian (azken hau giza kontsumorako itxita dago egun). Ezker Anitza – IUk hori salatzen dugu, eta Eusko Jaurlaritzari zein URA Uraren Euskal Agentziari eskatu diegu ekin diezaiotela LINDANEa kontrolatu eta gure lurretik ezabatzeari, arriskutsua baita giza osasunerako.

Beharrezkoa da ondasunen zein zerbitzuen eta finantzaketaren balorazio sistemen joko arauak aldatzea, metodo horiek hiri aglomerazio handien, edo estatu industrializatuen (biztanlerien, kapitalen eta baliabideen erakargune) eta landa munduaren, edo herrialde txiroen, arteko zuloa handitzen jarrai ez dezaten, aipatu herrialdeok baliabideak bereganatzeko eta hondakinak isurtzeko eremu bihurtu baitira. Ezin bestekoa da zehaztea nola txertatzen den ondasunen eta zerbitzuen produkzio jarduera ingurune fisikoan: planetan.

Ingurumen zergak kontabilitatea irizpide ekologikoz erreformatu beharraren eta gastu publikoaren orientazio berri baten zati dira. Zergapetze berde horrek ez du diru bilketa helburu, baizik eta produkzioan, banaketan eta kontsumoan aldaketa sakonak hauspotzea: ingurumena kaltetzen dituzten jarduerak zergapetu behar ditu, eta ondorio mesedegarriak dituztenak hauspotu.

Eredu horretan energia garbiek behar dute energia fosilentzako produkzio alternatiba bakarra, eta energia nuklearra, beraz, desagertu behar da, Garoña eta zentral nuklearrak itxi, eta gasa erauzteko fracking teknika ez erabili, eta sektore publikoak energia sortzearen alde apustu egin, baita autohorniduraren alde ere, guztiz kalterako baita epe erdira amaitzekoak diren erregai fosilen erabileran oinarritutako garapen ekonomikoko ereduari, energia kontsumoko hazkunde mugagabeari eusten jarraitzea, eta CO2 isurpenenengatik kezka txikirik ez izatea, urte gutxiren buruan planeta beroketa orokorra esponentzialki igoko duten arren. Itzulik gabeko puntu batean gaude, ez bakarrik ingurumenaren aldetik, baizik eta pertsonen bizi kalitateari dagokionez batez ere.

Lurralde Antolamenduak natur espazioaren harrapaketa egiten ez duen eredu behar dugu, herritarrek partaidetza duten eredu bat, baita zerbitzuak, etxebizitzak eta industria elkarrekin nahasten diren hiriak ere, bizi garen bizilekuetatik kanpoko lantokietara mugitzera behartzen gaituen hiri eredutik urrun. Giza garapena bultzatzen duen gizartea behar dugu, bere ingurumen funtzioak betetzen dituen lurralde bat, eta ekosistemen osotasuna bermatzen duen gizakien eta naturaren arteko harremana.

Eredu horren arabera babestu behar ditugu ekoizle txikiak, adibidez, saltoki txikiak, ez bakarrik gure hiriak gizatiarragoak eginez, baizik eta landa eremua eta itsasoa ere bizigarriago, saltoki handien edo elikagaien oligopolio handien ereduaren aurrez aurre.

Ekonomia Zirkularraren alde apustu egiten duen eredu bat nahi dugu, non produkzioa kontrolatzen den, elementu ez birziklagarriak edo paketatuz fabrikatzea

eragozteko eta, aldi berean, behin bizi ziklo baliagarria amaitzean industrietan zein etxeetan lehengaiak berreskuratzen dituen eredu bat ere. Horregatik, errausketa ereduaren kontra gaude, eta sorburuan hondakinak banatzearen alde, gure etxeetan ere. Beraz, ekonomia zirkularra bultzatzea da giltza, sortzen diren hondakinak egoki kudeatzeko esparrua baita, baina gizartean eta tokian inpaktua izan behar du, korporazio handien eskuetan utzi gabe.

Eredu horretan gure natur espazioen kudeaketa, kontserbazioa eta kontrola erakunde publikoen marketin izateari utziko diote eta, aldiz, politiken oinarritzko elementu bihurtuko, ez bakarrik lur eremu babestuak handituz, baizik eta baita itsas eremu babestuak ere.

Eredu horretan, garraioa iraunkorra izan behar da, bizikleta, tren, autobus edo tranbiaren alde apustu eginez, garraiorako ezin besteko elementu gisa, ez bakarrik pertsonentzat, baizik eta salgaientzat ere; horretarako, mugikortasunean inbertsioak egin behar dira ingurune mugakideen artean, AHT bezalako azpiegitura handietatik bazter, horrek gutxi batzuei emango baitie zerbitzua kostu onartezin batean.

Frogatu egin da argi eta garbi petrolio merkearen aroa betiko amaituko dela, eta horrelako baliabideen kontsumoa ez dela planetarentzat iraunkorra. Horrek gogoeta sakon bat piztu behar digu energiaren bestelako aukerei buruz, eta eztabaida ororen ardatz nagusi bihurtu, ekonomiaren eta baliabideen plangintza demokratiko bat planteatzeko premiari buruz. Plangintza horrek eskari eta beharrizan irizpideei begiratu behar die, gizarte justizia eta aberastasun banaketaren ikuspegi batetik.

Gure ustez, lehenetsi egin behar dira biztanleria osoaren oinarritzko beharrizanak, baina etorkizuneko belaunaldien beharrizan horiek aseta edukitzea arriskuan jarri gabe. Energia berriztagarrien alde apustu egiten duen eredua da, “enplegu berdea”, ekonomia solidarioko formula berriak babestea. Horretarako, ezin bestekoak dira natur baliabide estrategikoen jabetza eta kudeaketa publikoak: ura, energia, airea eta lurzorua, salgai bihurtzea eragotziz.

Gure ustez, beraz, ezin bestekoa da jarduera produktiboaren beste kontabilitate batez hitz egitea, eta Azterna Ekologikoa erabiltzea, baita Giza Garapenaren Indizea, Planeta Biziaren Indizea eta Benetako Aurrerabidearen Indizea ere. Era horretan, Barne Produktu Gordinaren Indizea gaindituko dugu, transakzio komertzialak ikuspegi klasiko batez bakarrik hartzen baititu kontuan, gainerako naturarekiko harremanen eta zainketen gaiari ezikusia eginez. Ezker Anitza - IUK proposatutako adierazleek zenbaki zehatzagoak ematen dituzte ondasunen eta zerbitzuen jarduera produktiboak ingurune fisikoan, planetan, txertatzeko duen moduz.

Errespetu eredu hori inguruneko animaliei ere dagokie, horiek ere sufritzeko eta disfrutatze gaitasuna baitute eta, beraz, errespetu hori zor zaie. Ezker Anitza – IUK animalien eta ingurunearen errespetuan oinarritutako hezkuntzaren alde egiten du. Animalien Babeserako Legearen eraldaketa eskatzen dugu, gure gizartean, gure festetan edo ikuskizunetan animalien tratu txarrak eragozteko.

Partaidetza eskubidea demokrazian sakontzeko eta askatasunen erregimena eguneratzeko bide.

Ezker Anitza – IUk interes orokorreko gai publiko guztietan herritarren partaidetza eskubidea aldarrikatzen du, demokrazian sakontzeko eta askatasunen erregimena eguneratzeko bidea den neurrian.

Autonomia Estatutuko 9.2 artikulua ezartzen du “Euskal herri-aginteeek, beren eskumenen esparruan, Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte- alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute”la.

Ordezkaritzako demokraziaren ezaugarria da, hala ere, herritarren partaidetza mugatzea, baita demokraziaren oinarritzko arloak ukatzea ere. Are, Espainiako konstituzioaren azkeneko laster erreformak, herritarrei kontsultatu gabe egindakoak, agerian utzi du alderdi handiek hartutako erabakiak eta herritarren interesak elkarrengandik urrun daudela, eta berdin balio du horrek Europako eremuan hartzen diren erabakientzat, milioika pertsonen eguneroko bizitzan eragin zuzena duten arren.

Aipatutako artikuluan adierazten den bezala, demokrazia gizarte biziko arlo guztietan parte hartu ahal izateko eskubide politikoen garapen prozesu bat da, betiere hobetu daitekeena. Sistema kapitalistak, aldiz, baztertu egiten du partaidetza demokratikoa produkzioko erabakietatik, eta pertsonen erabakitzeko gaitasuna kontsumoaren arlora mugatzen du, horietako bakoitzak duen erosteko ahalmenaren arabera.

Botere publikoen erantzukizuna da estrategia eta gizarte-arloko erabakiei dagokien guztian, partaidetza, erabakiak hartzeko mekanismo normal eta ohikoena bihurtu dadin baldintzak sortzea, indarrean den legediaren arabera: inbertsioa, hirigintza, kultura, garraioak, gizarte zerbitzuak, teknologia, etab. Halaber, baldintzak sortu behar ditu demokrazia enpresa den gizarte jarduera arlo horretara hel dadin, bertan jabetzaren legeak printzipio demokratikoei gailentzen baitzaizkie, horiek ukatuz.

Euskadi erkidego txikia da, bi milioitik gora eskas biztanle ditu, eta bizi publikoan parte hartzeko bere politika izateko ahalmena du, eztabaida politikotik haraindi hel daitekeena, beti bakebideari eta normalizazioari buruzkoa izaten baita. Herritarrei kontsultatzea zilegi eta demokratikoa da, legezko eta gizabidezko ekintza; izan ere, erakunde publikoen eta alderdi politikoen betebeharrak politiko eta etikoa da.

Beharrezkoa da gai publikoen deliberazioan, diseinuan eta garapenean gero eta pertsona gehiagok parte hartzeko tresnak, erremintak eta espazioak jartzea, hori sine que non baldintza baita politikari buruzko egungo desilusioa eta herritarren eta haien ordezkari lanak egiten dituzten erakunde publikoen arteko zuloa gainditzeko. Pertsonak gauzak dituzte esateko bizi diren herrien eta hirien garapen urbanistikoari buruz, azpiegitura handiei buruz, gizarte zerbitzuei buruz (luze baino lehen horiek erabili beharko baitituzte), baita ingurumenaren defentsari buruz, edo beste gai oso desberdinei buruz ere: immigrazioa, adin txikien edo

pertsona nagusien arreta, pagatzen ditugun zergen erabilera... Badute zer esan ere bizikidetzaren ereduari buruz, eta Estatuko beste herriekiko harremanei buruz.

Demokrazia handitu egin behar dugu, hauteskunde legea eraberritu, Euskal Autonomia Erkidegoa hautes barruti bakar bat izan dadin eta boto guztiek balioa berdina izan dezaten, hala Estatuan, nola Euskadin; izan ere, Bizkaian legebiltzarkide bat lortzeko Arabako botoen hiru halako behar dira, eta horrek ordezkartzaren distortsioak eragiten ditu. Ezin bestekoa da legegintzako herri ekimenak (LHEak) herritarren hurbilago jartzea, prozesua soilduz eta proposamenak eztabaidatu ahal izateko beharrezko sinadura kopurua nabarmen gutxituz. Herritarrek kargu publikoen gainean duten kontrola bermatu behar dugu, hautesleen aurrean kontuak emateko mekanismoak irekiz eta, aukeratu zuten pertsonen konfiantza galduz gero, horretarako kargugabetuz.

Beharrezkoa da, halaber, alderdien rola berrikustea eta, bereziki, haien funtzionamendua, demokrazia parte-hartzaileari ere irekita utziz. Alde horretatik, gure erakunde politikoa eredu garria izan behar da, alderdikideen eskubideak bermatuz, alderdikideei eta zaleei erabakiak hartzeko prozesuei, finantzei eta negoziatioei buruzko informazio gehiago emanaz. Beharrezkoa da, halaber, alderdikide guztiek erakundeari buruzko erabaki handi guztietan parte hartu ahal izatea.

Federalismoa eta errepublika. Euskal erakundearen arkitektura berri baterantz

Federalismoa eta errepublika

Gizarte berri bat eraikitzeke Estatu Eredu proposamena

Estatu federal, nazio anitz eta errepublikazale, lankide eta solidarioaren eredu defenditzeko, ezin bestekoa dugu nazio anitz, kultura anitz eta hizkuntza anitzeko errealitatetik sortutako kontraesanak ebazten lagunduko duen tresna konstituzional bat, Estatuaren osaera anitza onartuko duena, lurralde eta gizarte berrorrekak bermatu, alegia, berdintasun eta gizarte justizia printzipioak benetako bihurtzen dituen Estatu izatea.

Eredu hau lankidetzaren horizontalean oinarritzen da, boterearen banaketarako modua emango duen elkartasun sare bat ehunduz, Administrazio zentrala – Administrazio periferikoa mendekotasun ikuspegia gaituz.

Federazioa osatzeko proposamena, nazioanitza, lankidea eta solidarioa, herriak eta nazioak Itun Konstituziogile bati libreki eta borondatez atxikitzean oinarritu behar da eta, beraz, federatzen diren lurralde unitateak osatzen dituzten herrien erabaki subiranokide batetik sortu behar da Errepublika Federalaren Konstituzioa.

Zuzenbide estatua, errepublika, gizarte justizia, federalismoa, demokrazia, elkartasuna, laikotasuna eta feminismoa ezin bestekoak dira gizarte eredu berri baten proposamena egiteko orduan, batez ere azken hamarkadetan Europa osoan nagusitutako politika neoliberalen ondorioz zuzenki bizi dugun politika, gizarte eta ekonomiaren krisialdi sakon honetan, Espainian, Trantsizioan eratutako eredu agortzeak larrituta.

Sozialismoa eraikitzeko Estatu federal bat

Idea federalistak eguneratu behar dira mundu globalizatuaren beharrezanean erantzuteko, baina indarrean jarraitzen dute, Estatu nazional zentralizatuen aldean. Gizarte konplexu eta gero eta anitzagoetan, herritarrek gero eta gehiago behar dute boterea hurbil egotea, baina aldi berean nazioz gaineko antolamendu politikoetan txertatu behar dira eta, horietan, elkarren mendekotasun ekonomikoa, politikoa eta soziala areagotzen da. Bada, federalismoak erreminta nahikoak eskaintzen ditu aurkitzen dituzten zailtasun eta kontraesan ugariak kudeatzeko.

Federalismoak demokrazian eta herritarren partaidetzan sakontzeko modua ematen du, baita tokiko eta lurraldeko autogobernuan, lurralde arteko lankidetzan eta elkartasunean, askotariko identitateen errespetuan eta integrazioan ere, eta bateratzen egiten ditu autodeterminazioa eta erakunde politiko komun bateko partaidetza. Gure proposamen federalistak itunaren eta alde askoren arteko negoziazioaren gainean eraikitzen du antolamendu politikoa.

Egun, beharrezkoa da determinazio librearen printzipio demokratikoa aldarrikatu eta defenditzea, bereziki eskubide demokratiko eta sozialei lotuta, kapitalismo globala horiek likidatzen ari baita. Ezin bestekoa da Estatu osoko herritarrek eta gizarte langilearen gehiengoak, gizarte eta klase ikuspegi batetik, erabakitzeo eskubidea erabiltzea, beren politika, gizarte eta lan-arloko eskubideen defentsan.

Aldi berean, eskatzen dugun eraldaketak beharrezkoa du botere publiko sendoa duen Estatu, demokratikoa eta parte-hartzailea, eskubideak bermatzearen esku hartzeko prest dagoena, bereziki gizarteko gehiengo langilearen eskubideak babesteko, kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak ezartzeko, hezkuntza eskubidea, osasun eskubidea, lan eskubidea, etxebizitza eskubidea, aisialdi eskubidea berma ditzan eta, hartara, aberastasuna eta aukerak birbanatzeko. Gizarte eraldaketak behar du ez bakarrik gizarte ongizatea babesten duen Estatu, baizik eta gizarte justizia eta berdintasuna gogotsu sustatzen dituen ere; iraultza demokratikoa eta gizarte iraultza hertsiki lotuta dauden bi prozesu dira. Demokrazia ekonomian sartzea nahi badugu eta merkatuen esklabo izateari utzi, beharrezkoa da produkzio indar handien jabetza harremanen aldaketa bat.

Ekonomiaren plangintza demokratikoa behar da, lehentasuna ekonomiaren gizarte beharrezanetan jartzen duena, eta naturak jartzen dizkigun mugak kontuan hartzen dituen.

Patriarkatuaren kontrako Estatu, laikoa, eta demokratikoa

Federalismo Solidarioaren identitate ikurrak laikotasuna eta feminismoa izan dira. Laikotasuna zentzu zabalean hartuta, ez bakarrik, baina baita ere, erlijioari buruz duen adiera ohikoenaz. Botere publikoek zorrotasun handienaz errespetatu behar dituzte pertsonen askatasuna, bereziki haien iritzia, kontzientzia eta erlijio sinesmen eta sinesmen filosofikoak zein politikoak, eta bermatu behar dute, halaber, desberdintasuna izateko eskubidea eta bizi dugun gizarteko kultur, hizkuntza eta identitate aniztasuna. Botere publikoak balio partekatu batzuk behar ditu bere burua arautzeko, eskubideen errespetuan oinarritzen da bizikidetzak edukitzeko, baina ezin du identitate bat inposatu, ez herritarrei banaka, ez gizarte taldeei edo gizarteari oro har. Estatuak laikoa behar du eta, beraz, askotariko

sinesbide eta erlijio aukeretatik independente behar du, ezin du sinesbide bat ere edo erlijio jakin bat sustatu.

Feminismoak esan nahi du gizarte patriarkala desmuntatzeko beharrezanarekin konpromisoa izatea, ez bakarrik arlo pribatuan harreman pertsonalei eraginez, baizik eta zeharka bizi politikoko arlo guztietan eta erakunde publikoetan adierazpidea edukiz. Errepublika Federaleko konstituzioak genero berdintasunari buruzko berme osoak hartu behar ditu kontuan, eta konstituzioaren kontrakotzat dauka genero berdintasuna xedatzen ez duen edozein lege haren idatz-zati guztietan eta, gainera, xedatzen du emakumeek erabakitze eskubidea dutela eta berdintasun balioetan hezi beharra.

Aldi berean, bizi dugun gizarte konplexuan ez du balio esatea subiranotasuna herriari dagokiola; benetako demokrazia batek behar du herritarren partaidetza mekanismoak handitzeko eta sustatzeko ahalegina areagotzea, herritar bakoitzak (eta ez pertsona handiki gutxi batzuek) erabakietan parte hartzeko modua izan dezan, botere publiko guztien ekintzan gardentasuna bermatu dadin, gizarte osoaren irismenean dagoen informazio libre eta objektiboa segurtatzearen, boterea erabiltzen dutenen gainean kontrol mekanismoak zorrotzearen, eta erabakiak horien hartzaileengana albait gehien hurbiltzearen.

Prozesu konstituziogile baten alde

Herritarrek, demokraziaren eta proposatzen dugun Estatu nazioanitz eta sozialaren defentsan, erabakitze eskubidea erabil dezaten, beharrezkoa da agintea irabaztea, Estatu osoan errepublikarako prozesu konstituziogile bat garatzeko, eta hor aurkitzen du eredu federal solidarioaren proposamenak legitimazio demokratiko osoa: bereziki Espainia nazioanitzeko lurralde guztietarako proposamen aurreratu bat aldean akordioa eta borondatezkotasuna artikulatuz eta, hartara, politikoki herrialde deszentralizatu berri bat eta langile gehiengoarentzako gizarte eskubideei dagokienez bateratua eraikiz.

Prozesu konstituziogile hori erreminta demokratiko gisa eratzen da, erabakitze eskubidea gizarte eta klase ikuspegi batetik erabiltzeko. Prozesu konstituziogile honek gizarte gehiengo langilea ordezkatu eta defendatzen duen Estatua eraikiko du. Eskubide politiko eta sozialen defentsa legitimoa egiten duen prozesu konstituziogile bat, gizarte gehiengoak erabakitze eskubidea erabil dezan; hartara, Estatuaren arkitektura eraikiko dugu, gehiengoak berezkoak dituen eskubideak konkistatu eta erabiltzeko.

Prozesu horren arrazoia izan behar da gizarte gehiengo langilearen eskubideak itotzen ari den sistema politiko-ekonomikoarekin haustura eragitea. Prozesu hori politika egiteko beste forma batzuetatik sortu behar da, demokrazia parte-hartzailean oinarritutako beste joko arau batzuk sortuz. Prozesua antikapitalista izan behar da, errepublikazalea, herriaren subiranotasunaren berreskuratzailea, anti-inperialista eta feminista. Prozesuaren abiapuntua 1978ko Konstituzioa gainditzearen aitortza izan behar da, haren gizarte-arloko edukiek balioa galdu baitute,

bete ez diren neurrian; zaharkituta geratu da herriaren beharrezanean erantzun bat ez eman ez dielako. Eragile askoren partaidetzari irekitako prozesua izan behar da, eragile banakoak zein taldeak, baita horizontala ere; era horretan, prozesuaren

helburuetako bat partaidetzarako erreminta iraunkorrak sortzea izan behar da, herritarrek gobernuan diren eta ordezkariak duten pertsonak haien bitartez ere kargugabetu ahal izateko. Prozesuak berak helburutzat du hizkera ulergarri eta hurbil bat erabiltzea, guztiek politika egin ahal izan dezaten.

Errepublika Estatu

Proposamen Federala zuzenean dago uztartuta errepublikaren aldeko aukerarekin, zentzu bikoitzean:

Kargu publiko guztiak herritar guztien eskuetan egon behar direla defendatzea, erantzukizuna izan behar direla, eta herritarren kontrolpean izan, baita Estatuaren Buruzagitza ere. Arbuia egiten dugu, hasteko, monarkia, Estatuaren magistratura gorena familia baten esku uzten duelako, eta hartatik gainerako herritarrak baztertzen, eta ustelkeria oparo hazteko ezin hobea den axolagabekeria erregimen bat konstituzioz mantentzen. Gainera, Koroaren herentzia segida mantentzea, instituzioak duen sinbolismoagatik, esan nahi du gizarte politikoa eratzeko orduan balio oso kontserbadoreak onartzea, adibidez, herentzia eta tradizioa eta, Espainiako monarkiaren kasu berezian, eredu patriarkala kontsokratzea, gizonezko oinordetza lehenesten baitu emakumezkoaren gainetik.

Res publican sinesten dugu, berdintasunean sinesten dugulako, ordezkariak demokraziaren tradizioa geure egiten dugulako, hura gainditzeko espiritu kritikoaz, eta geure egiten dugulako askatasunaren errepublikar tradizioa, gizabanakoaren zein taldearen emantzipazioa eta partaidetza esan nahi duten neurrian.

Errepublika, beraz, ez da gure iritziz Estatuaren Buruzagitza eratzeko forma bakarrik. Errepublika, Errepublika Estatu, ezin da oinarritu herri edo nazio abstraktuetan edo idealki subiranoetan, baizik eta herritarretan, partaidetzan, aniztasunean, askatasunean, ulertuz azken hau zeregin kolektiboa dela eta ez botere publikoaren ez-egite hutsa; berdintasunean ere oinarritua behar du, ulertuz ez dela bakarrik legezko berdintasuna, benetako aukera berdintasuna baizik; sendetasunean ere, ulertuz gizarte elkartasunez antolatzen dela, eta guztion justizia eta zoriona sustatzen dituela.

Estatu nazioanitzaren eta solidariora

Defendatzen dugu identitateen aniztasuna bere egiten duen Estatu eredu, aniztasuna aitortzen duen diskurtso komun bat izateko gai; nazioanitzaren ez bakarrik hainbat nazio uztartzearen zentzuan, baizik eta balio duelako ere lurralde eta erkidego berean askotariko identitate sentimenduak eta nazioari buruzko ikuspegi desberdinak dituzten pertsonen bizikidetzarako.

Bakarrik haren baitan askotariko nazio identitate sentimenduak elkarrekin bizi daitezkeela onartu eta demokrazian deszentralizazioaren eta lurralde autogobernuaren bitartez sakontzen duen aniztasunaren aldeko Estatu batek gogobete ditzake nazio askotariko moduetan ikusten dituzten herritarrak eta, halaber, aurre egin diezaieke identitate eta bizikidetzaren gatazka saihestezinei, eta horiek elkarriketaren eta adostasunaren bitartez konpondu.

Estatu hori, beraz, nazioen eta herrien borondatez eraiki behar da. Borondate hori ezin bestekoa da gizarte gehiengo langilearen zerbitzutan sortutako batasunaren

indar handiagoa bermatzeko. Alde horretatik, Ezker Anitza – IU, Errepublika Federal eta Nazioanitza eraikitzearen aldeko Euskadi aktiboa defendatzen dugu. Edonola ere, Euskadiko balizko kontsulta baten erabakia errespetatuko genuke.

Ezker Anitza - IU erakunde errepublikazalea eta federalista da. Federalismoaren jatorriak sinesmen historiko irmo batean du oinarria: Espainiako Estatuak porrot egiten duela berau osatzen duten herrien aniztasuna bere egiteko sustatutako hiru ahaleginetan. Hala 1978ko Konstituzioak, nola gai honetan haren inspiratzen den II. Errepublikako Konstituzioak, eztabaida horri heldu zioten eraginpeko gizarteek Espainiako estatuarekin nahi zuten harreman eredia libre eta demokratikoki erabakitzea onartzearen beldur bizi batez.

Horren trukean, Estatuaren erdiguneak “historiko” deitutako hiru erkidego jakinentzako estatutu eredu bat eskaini zuen, eta luze gabe lurralde komuna edo gainerako Estatu dei dezakegunaren oldarra ikusi zuten. Hain zuzen, gainerako lurraldeei iruditu zitzaienten estatu erregimen horiek pribilegio moduko bat zirela eta, ondorioz, gehiengoa osatzen zuten bi alderdiek autonomia erkidegoen eredia berdindu egin zuten 1978az geroztik.

Gure eredu federala gure indargune handietako bat da. Lan pedagogikoari ekin behar diogu, gizarteari eredu federalaren bertuteak zeintzuk diren helarazteko eta, aldi berean, jendeak abangoardiako erakunde politikotzat har gaitzan. Gure erakunde politikoak egitasmo argia eta zehatza du, aurreratzeko eta lanean jarraitzeko gai. Ezker Anitza - IU eta IU Federala izenak gizarteak abangoardiaren eta errespetuaren baliokide har ditzan lortu behar dugu. Biztanleriaren erreferente nahi dugu arlo horretan ere, eta federalismoa iraunkorki gure erakundeari uztartuta ikusia, ezagutua eta aitortua izatea.

Euskobarometroren datuen arabera (2016ko martxoa), % 34k federalismoa jotzen du Euskadi eta Estatuaren arteko harremanak arautzeko oinarri egokientzat, independentziaren aldeko hautuak besteko ehunekoa. Ehuneko hori oso handia da, eta garrantzia eman behar diogu Ezker Anitza – IU izatea herritarrek adostasun zabal batez, ia independentziaren pare, babesten duten eredu horren aldeko argi eta garbia den indar bakarra izatea. Ondorengoak dira Federalismoaren ezaugarri batzuk:

Federalismoa ez da egitasmo itxia; aldiz, saiatzen da batez ere herritar guztientzako eta Espainiako Estatu herri guztientzako prozesu ireki bat izaten.

Federalismoa ez da eraikitzen osoki modu bateko edo besteko Estatutua eraldatuz, baizik eta argi eta berriaz prozesu konstituziogilea irekiz, estatu osoan IUK defendatutakoaren ildotik. Prozesu parte-hartzaile bat, egungo konstituzioa gainditzeko konstituzio berria prestatzeko, eta estatua osatzen dute askotariko identitateek toki bat izatea bermatzen duena.

Federalismoan, Estatu Erkidego Federatu bakoitzak, Estatuarekin duen itun federalean, Konstituzio federalean dauden eskumenak libreki eskura ditzake, edo Estatu federalean eskuordetu.

Federalismoan, subiranotasuna ez da egongo eragile politikoaren edo epaileen eskuetan. Herritarren eskuetan izango da soilik. Horregatik guztiagatik, Atxikimendu Libreko Federalismoan, erabaki garrantzitsuak hartu behar den

bakoitzean, erreferenduma deituko da, eta errespetatuko egingo da gizarteak gehiengoz adierazitako borondatea. Noski, printzipio hori Euskadin aplikatzeak esan nahi du Ezker Anitza – IUk aitortu egiten duela euskal gizarteak bere etorkizun politikoa libreki eta demokratikoki erabakitzeko duen eskubidea. Hain zuzen, Estatuarekin izango duen harreman ereduari buruz libreki erabakitzen duen gizarte horri eskaintzen diogu egitasmo federala.

Bukatzeko, adierazi behar dugu gure eredu federala nazionalitateen arteko elkartasunean oinarritzen dela, Estatuaren aberastasun politiko eta instituzionalari eutsiz, baina egungo ekarpenekin, uneko gizartearen eskariekin dinamizatuz eta kanpoko ekarpenekin aberastuz. Estatu sozial osoa, eta kulturakoa, eskubideen defentsa bermatzen duena, hala gizabanakoena, nola taldeena. Errepublika federal bat bere barruko kultura aniztasuna bultzatzen duena, hizkuntza zein kultura aniztasuna eta kultura horiek beste batzuekin bat egitea bermatzen duena.

Estatu Solidario bat, barnean zein kanpoan, elkartasunean zein internazionalismoan (ez gai militarretan edo salerosketan) oinarritutako nazioarteko harremanak dituena.

Bukatzeko, ETaren indarkeria amaitu ondoren, artean geratzen zaigu gatazka politikorik Euskadi Espainiako estatuan txertatzeari, subjektu politiko gisa aitortua izateari eta lurralde eremuari buruz. Alde horretatik, gure iritziz, konponbide bakarra Demokrazia zorrotz aplikatzea da. Lurralde eremua zehazteko, egungo errealitate politiko-administratibotik abiatuz, herritarrei kontsultatu beharko litzaieke subjektu politiko bakarra eratzeko duten borondateari buruz.

Kontsulta horren emaitzari, gero galdetu beharko litzaioke estatuan tokia izateko zein eredu jarraitu nahi den, edo estatu hari uko egiten dion, independentziaren bitartez. Ezker Anitza – IUk kontsulta horretan eredu federal baten alde egingo luke, hori baita gure identitate ideologikoaren ikurra Euskadin zein Estatuan. Prozesu horrek guztiak Estatuarekin hitzartua behar du halaberrez, estatuaren babesik gabe, horrelako kontsulta batek gaiztotu egingo bailuke artean konpondu gabeko gatazka politikoa, emaitza edozein dela ere.

Euskal erakundeen arkitektura berri baterantz.

Euskadi eta estatuaren arteko harremanari behin heldutakoan, gure erkidegoaren arkitekturari buruzko gogoeta bat egin beharko da euskal administrazioa barnetik antolatzeke orduan. Alde horretatik, azken garaiotan bi elementu jarri dira mahai gainean arkitektura horri buruz:

Alde batetik, estatuaren multzoko eskuinak Aldundiak ezabatzeko egindako proposamenaren ondoren, Euskadin berriz ireki da ez Foru Aldundien rola ezeztatzeari buruzko sesioa, baizik eta haien eginkizunei buruzkoa, eta horrelako herrialde txikian halako mataza administratiboa edukitzeak duen zentzuari buruzkoa. Gainera, egun, eskumeneke nolabaiteko zehaztasun falta dute eta, ondorioz, bikoiztu egiten dira batzuetan. Bikoizketei buruz Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari agindutako txostenak (2011) ondorioztatu zuen Euskadiko askotariko erakundeen arteko eskumen bikoizketak 403 milioi euroko galera dakarkiola diruzaintzari: erkidegoko gobernuak gizarte-arloan egiten duen inbertsioaren edo Donostiako Udalaren aurrekontuaren antzeko kopurua.

Ondorioz, egungo banaketa administratiboa gainditu behar dugu egitura arrazionalago baten alde, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeen inguruan harilkatua, herritarrek erabakietan gehiago parte hartu, oinarritzko eskubideak bermatu eta administrazio egituren efizientzia erraztu ditzan.

Ezker Anitza - IU udalerrien aldeko indarra da ohituraz, irizten baitu Euskadiren erakunde publikoen egituraren muina udalerriak izan behar direla, eta haiek hartu behar dituztela beren gain oinarritzko eskumen administratibo eta betearazleak zerbitzu publikoen prestazio eta herritarren eskubide eta erantzukizun gaietan. Udalerriek arautzeko eskumen zabalak izan behar dituzte beren jurisdikzio mugak gainditzen ez dituzten gaietan, herritarrek zuzeneko demokrazia erabili ahal izan dezaten.

Berriki onartutako apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udalen eta tokiko beste erakunde publiko batzuen, adibidez, udalerrri elkarteak, eskumenak ordenatzeko ahalegina egin du, baita euskal ogasunen zerga bilketan protagonismo handia izateko ere.

Hala ere, Legeak udalerriek erabili beharreko eskumenak zein izango diren (ia dagoeneko badituztenak) zehaztu ahal izango duen arren, konpondu gabe geratu da finantzaketaren gaia; izan ere, Legeko Lehen eta Bigarren xedapen iragankorren arabera, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak urtebete du bere eskumenen eta EAEko erakunde publikoen finantzaketaren azterketa bat egiteko eta, hartara, gastu publikoa behar bezala banatzen dela segurtatzeko.

Ondorio horiek Ekarpenen Legea berrikusteko erabiliko dira, horrek definitzen baitu diru-sarrerak EJren, Foru Aldundien eta Udalen artean nola banatzen diren (izan ere, hori da finantzaketaren gaiaren eta gure erakunde publikoen matazaren eta euskal erakunde publikoen arteko harremanen muina), eta berrikuspen hori “albait epe laburrenean egin behar da”, baina epe hori denboran luza daiteke, Eusko Legebiltzarreko indarren arteko egungo oreka dela eta. Gainera, aurreikustekoa da EAJK kontrolatutako hiru Foru Aldundiak ez direla bat etorriko”.

Ohartuta udalerrri txikienentzako zerbitzuak elkartzeko egiturak artikulatzeko beharra dagoela, gure ustez, udalerriek egungo eskualdeko figura juridikoak bultzatu behar dituzte, adibidez, udalerrri elkarteak, eskualdeak edo kuadrillak; era horretan, lankidetzak modua emango digu herritar guztioi zerbitzu eta eskubide berdinak izateko, udalerrriaren tamaina edozein dela ere.

Gainera, udalerriei beren zereginen laguntzeko, Foru Aldundiek udalei eman behar dizkiete herritarrentzako zerbitzuen kudeaketari lotutako eskumenak eta, hartara, udalerrien jardueraren laguntza planteamendu bat hartu.

Bukatzeko, apustu egiten dugu, halaber, Eusko Jaurlaritzak Itun Ekonomikoan ezarritako zerga arloko eskumenak berreskuratzearen alde, baita udalerrien mugak gainditzen dituen aplikazio eremurako betearazpen eta kudeaketa eskumenak direnean ere. Era horretan, herrialdearentzako zerga politika bakarra ezarri nahi dugu, gai gehienetan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzak izan ditzan zerbitzu publiko nagusien finantzaketari (osasuna, hezkuntza, enplegua, DSBE edo RGI delakoa) aurre egiteko baliabide ekonomikoak.

Bakea eta gizarte berradiskidetzea

Erabateko normalizazio, gardentasun eta inklusio egoera Demokrazian sakonduz bakarrik lortu ahal izango dugu, eskusiban bitarteko demokratikoetan eta indarkeriaren edo erabiltzeko mehatxuaren erabateko absentsian oinarrituta.

Alde horretatik, gure ustez, Euskadiko bakearen eta normalizazio politikoaren inguruko lehendabiziko gogoeta bi arlo zorrozki bereizteko premia da: Bakea, alde batetik, eta Normalizazio Politikoa, bestetik.

Ez dago demokraziaren ezer aurkakoagorik indarkeria baino, dela erregimen totalitarioek baliatzen dutenean, dela, Euskadin bezala, haren proposamen politikoa indarkeriaren bitartez inposatzen saiatutako talde terrorista batek baliatzen duenean.

Horrenbestez, gure ikuspegiaren arabera, Euskadin demokrazia sendotzeko lehenengo urratsa ETA behin betiko eta baldintzarik gabe desagertzea da.

Bost urte pasa dira dagoeneko ETAk suetena iragarri zuenetik eta, egiaztatu denez, erabakia itzulezina da. Hala ere, erakunde terroristak ez du artean ere bere armagabetzea eta desagerpena behin betiko gauzatu. Halaber, Espainia eta Frantziako gobernuek ETA indarrean balebil bezala jarraitzea erabaki dute: ez dute aldatu beren dispertsio eta urrutiratze espetze politika, eta gaitz larriak edo sendaezinak dituzten pertsona presoak espetxeetan mantentzen dituzte, nahiz eta euskal gizartearen gehiengoa bat ez etorri, ezta Ezker Anitza – IU ere.

Erakunde armatuaren armagabetzeari dagokionez, ETAREN erantzukizuna da gauzatzea, egia ere baden arren bi estatuetako bat ere ez dela prest agertu egiaztatzerako, eta haien ekintza armategiak desegitea baino ez da. Hori dela eta, lan horretan aritutako nazioarteko egiaztatzaileak Audientzia Nazionaletik pasa behar izan ziren deklaratzera.

Halaber, gizartearen zati batek bere burua antolatu du ETAREN armak suntsituak direla egiaztatzeko eta, beraz, indarkeriarekin batere loturarik gabeko pertsonak ez dagokien erantzukizuna hartu dute, baita ondorioz atxilotuak izan ere. Atxiloteta horiek guztiz salatzeak dira, ez gatoz harekin bat eta, beraz, espero dugu salaketak artxibatzea. ETAK bere gain hartu behar du erantzukizuna, eta ez gizarte zibila babeskitzat hartu bere buruari dagokion zeregin horretarako.

Indarkeria terroristarik gabeko bost urte pasa ondoren, ETAREN zati handi batek eta haren inguruneak aitortu egin behar dute hainbeste denboraz eragindako kalte bidegabea eta justifikaezina. Aitortza etiko hori exiji dakioke, hala biktimei, nola gizartearen osotasunari eman beharreko erreparazio gisa, esan nahi baitu ere inoiz ez zela indarkeria erabili behar helburu politikoetarako. Aldi berean, ez errepikatzeko oinarriak ezartzen ditu. Bestela, ETAREN bukaerak irakurketa estrategikoa izan dezake eskusiban babestu duen gizartearen zati batentzat, baina batere auzitan jarri gabe hiltzea gaizki egon zela.

Indarkeria terroristaz eragindako kalte bidegabe eta justifikaezinaren aitortza gizartearen gehiengo batek ETARI eta haren inguruneari egindako exijentzietako bat izan da aspalditik. Hala ere, azken hilabeteetan, ikusi dugu indarkeria hori babestu zutenak ahalegindu direla eragindako sufrimenduaren atalari muzin

egiten, eta idazten gizarteak, oro har, eta haien munduak, bereziki, askotariko moduetan jasandako giza eskubideen urraketari dagokionaz soilik (GAL, torturak, ad hoc lege antiterrorista, “etsaiaren” justizia penala...). Erabateko bizikidetzaz lortzeko, ezin bestekoa da erabili eta babestu dituztenek eskubide guztien urraketak salbuespenik gabe aitortzea.

Terrorismoaren biktimei dagokienez, justizia, egia eta erreparazioa exijitu behar dira, Nazio Batuen doktrinari lotuz. Egia da euskal erakunde publikoek gaitzeko pausoak eman dituztela azken hamarkadan hiru helburu horien bila, baina artean bide luzea dago egiteko.

Etikaren ikuspegitik, aholkatzekoa da ezker abertzaleak bere aldean izan diren giza eskubideen urraketaen biktimei historikoki egin dien aitortza berdina egitea ETaren biktimei ere.

Irizpide hori Espainiako agintariei ere aplikatu dakieke, motibazio politikoko tratamendu bidegabeen biktimak deitu izan direnei buruz. Jabetzen gara Kode Penal aplikatzean gehiegikeriak egin direla askatasuna kentzeko pena batzuen iraupenari buruz, baita egun espetxean dauden pertsona batzuek izaera politikoa dutela eskusiban, baina baita beste batzuei egotzitako gertaerek larritasun penal handia dutela ere.

Berretsi egiten dugu espetxe erregimena salbuespenezko tratamendurik gabe aplikatu behar dela eta, lehenik eta behin, beharrezkoa dela osasun arrazoiengatik aske geratu, jatorrizko tokietara pertsona presoak hurbildu, kondenaren $\frac{3}{4}$ beteta askatu eta Parot doktrina kentzea, baita ezker abertzale politikari eta ETAko presoek aplikatutako salbuespen guztiak gure ordenamendu juridikotik kentzeko behar lege erreformak ere egitea, Alderdien Legea zein legedi antiterrorista baliogabetuz, inoiz ez baitzen halakorik promulgatu behar.

Birgizarteratzeari eta berradiskidetzeari dagokionez, “Langraitz bidea” delakoaren eta “leheneratze bilkuren” alde gaude irizpide etiko sendoetan oinarritutako bizikidetzara heltzeko forma onena delakoan, eta horri buruz, “Iruñeko manifestua”n berriz agertu ginen “Memorian oinarritutako bakearen alde, [eta] elkarbizitza pluralistaren aldeko apostua [egin]”, Nafarroako IUk, Batzarrek, Equo Euskadik eta Equo Nafarroak 2013ko urrian izenpetuta.

IRABAZTEKO BATERATU

Une orotan, ulertzen dugu herri batasuna hauteskundeetako lankidetzaz hutsetik eta askotariko modalitateetatik haraindi doan kontzeptu bat dela. Eta herri batasuna, hain zuzen, ez da diputatuen aktak hoberentzeko erreminta. Ez da ere hauteskundeetarako goiburua. Herri batasuna greba orokorretan, etxegabetzeak gelditzen eta herri klaseak elkarrekin lan egiten duten edozein gizarte gatazkatan agertzen den estrategia bat da, haien politika edo sindikatu arloko atxikimenduak edozein direla ere. Azken urteotan, herri batasuneko askotariko adierazpenak ikusi ditugu. 2010 eta 2012ko greba orokorrak, 2011ko M15 mugimendua, 2012tik aurrerako zerbitzu publikoen defentsarako jende oldeak, Duintasunaren aldeko Martxa edo mobilizazioak dira horren eredu. Eta baldintzak daudenean, oso beharrezkoa dugu jarrera hori erreplikatzeko. Hori da herri batasunean dugun ideia, honela laburbilduta: nor bere aldetik joan, baina batera jo.

Herri batasuna, beraz, gizartea salbatzeko estrategia da, eta bizimodu bat eztabaidatzen ari den komunitate politiko bat. Estatu osorako. Neoliberalismoa sendotzearen edo, haustura demokratikotik eta behetik, gizarte eta ekonomia alternatiba bat eratzearen arteko hautua da gakoa. Ogia, lana, aterpea eta duintasuna eskatzen dituen gizarte honen errailetatik, berretsi egiten dugu Europako herrien historiarako erabakigarria den une politiko honetan epe luzeko ikuspegia izateko deialdia.

Bestalde, 2015eko udal hauteskundeak hautagaitza bateratuak probatzeko eszenategia izan dira. Jatorri konplexua eta anitza eduki arren, egia da hautagaitza horietako askok emaitza onak izan zituztela Euskadin. Emaitzazko aniztasuna oso garrantzitsua izan zen, baita kultura politikoen nahasketa ere.

Herritar ezkertiarrei ilusioa pizteko gai izan ziren eta, aldi berean, erakutsi zuten izaera neoliberalerako alderdiei hauteskundeetan tarte bat jan zekiekeela. Hala ere, inondik ere ez zen lortu gehiago nahiko zabalik, ezta euskal ezker osoa biltzea ere, berriz ere siglen abertzaletasunak edo identitate nazionalerako ardatzak bereizita.

Hala ere, batasun esperientziek gurea bezalako gizarte eta ekonomia testuinguruan ahalmena dutela utzi dute agerian, erakarmen izugarria piztu baitute herritarren artean, eta mahai gainean haustura demokratikoko posizio argiak agerian utzi. Horrelako formulen aldeko gure apustua garbia da, eta lan egingo dugu, gainera, beste alderdi politikoei erakusteko Euskadin ere apustu estrategikoko komun bat bihurtu behar dela.

Defendatzen dugu bateratzea abegirako espazioa dela, identifikatuta sentitzen diren pertsona guztiek beren burua eroso ikusiko duten tokia, hala banaka, nola taldean. Bertan, pertsona eta erakunde bakoitzak aitortuta ikusiko du bere ekarpena, bere tamaina edozein dela ere. Bertan, pertsona eta erakunde bakoitza identifikatuta sentituko da politika zein antolamendu arloko erabakietan. Bateratze horiek bi elementu garrantzitsuren inguruan eraiki behar dira: federaltasuna, eta erradikaltasun demokratikoa. Federaltasunak balio behar digu askotariko lurraldeetan herri batasunerako espazioak eraikitzeke eta, hartara, politika, antolamendu eta hauteskundeetarako proposamen baten koherentzia bermatzeko.

Euskadin, gizarte eta politika arloko bloke alternatibo hori Elkarrekin Podemos da, baita Irabazi, Udalberri, Guk Getxo eta beste batasun hautagaitza batzuk. Ezker Anitza – IUren konpromisoa eta helburua da esperientzia horiek sendotu eta hedatzea: gizarte arloan hedatzea, erregimena aldatzea nahi duen euskal gizarte gehiengoaren integratuz, eta ekintza eremua hedatzea, erakunde publikoen ekintza gaituz eta borroka eremu guztietan egonez. Hala ere, Ezker Anitza – IUren erroka da batez ere bateratze esperientzia horiek gai izatea Euskadin ekonomia eta gizarte arloko alternatiba hori errealitate bihurtzea, Estatuarekin eta munduko gainerako herriekin lankidetzan. Era horretan, orain bai, lagundu egingo dugu bilatzen dugun gizarte eta politika arloko blokea osatzen.

Hamarkadetan, klase nagusiak eredu bat inposatu digu, balio duen bakarra dela eta beste edozein eredu porrot egiten duela guri sinetsaraziz.

Sinesten dugu batetik ere duak ez duela funtzionatzen eta, gainera, iritzi sendoa dugu beste bat desberdina behar dugula eta, hori lortzeko, ideia hori gizarte gehiengoari helarazi behar diogu, egungo gizarte adostasuna aldatu, eta gure eredu alternatiboaren inguruan agintea sortu. Alferrik da agiri askotako egitarau politiko borobilak lantzea jendeari hura helarazteko eta konbentzitzeko gaitasunik ez badugu. Eta horretan ari da duela hamarkadak klasea nagusia: kulturaren bitartez haien aldekoa den diskurtso bat zentzuzkoa bailitzan beti inposatzen.

Horregatik, gu klase nagusiaren kultur nagusitza desmuntatzeko lanean ere aritu behar gara, gurea ehuntzen dugun bitartean. Gizarte nagusitza irabazi behar dugu, arrazoiria eta bihotzera helduz.

Testu honetako azterketarekin eta IUko militantziako urteetan onartutako agiriekin bat etorritik, jarraitu egin behar dugu hauteskundeetarako lankidetzak espazioak eraikitzen, gure egitasmo politikoaren identitatea eta programarako espazio nahikoa aitortzen zaizkigun bitartean, batzen gaituena lehenetsiz eta bereizten gaituena kanpoan utziz.

IUz haraindi doan politika eta gizarteko mugimendu politiko bat eraikitzen dugun bitartean, beste indar eta mugimenduekin gure lankidetzak sendotu behar dugu. Egun ezinezkoa da zerotik abiatzen den ezker alternatibo, antikapitalista, errepublikazale, antipatriarkala eta ekologistaren proposamen bat. Ezker Anitza - IU militantzia politikoko espazio bakartzat gure alderdia duten kargu publiko eta pertsonen errealtate bat da. Aldi berean, ordea, gure erronka da beste askorekin batera gizarte eta politikako batasun espazio bat eraikitzea, Bloke Sozial eta Politikoko aliantza alternatiboak gorpuztuz, eta programa bateratu bat.

Une honetan, bateratze estrategia bat garatzea da gakoa, herri batasun zabala eratzeko, argi eta garbi haustura helburua aldean hartuta, eta askotariko nazio identitateen arteko bizikidetzak bilatzea, udalerritik eta lurralde historikoetarako programa batean oinarrituta, Euskadiko erakunde publikoen gehiengo zabalean agintzen duen EAJ-PSEri nagusitza kordokatzeko.

Eta estrategia da herri batasun zabalenean aurreratzea, zentzu oso batez, eta ez hauteskundeetarako bakarrik; buru-belarri jarri behar gara hori zehaztu eta hurrengo ziklo politikoan garatzeko, helburu estrategikoa baita egoera berrian gizarte arloan eta politikan esku hartzeko gaitasuna berreskuratzea, tresna egoki batez, eztabaida kolektiboren fruitu.

Herri batasuna, beraz, gizartea salbatzeko estrategia da, eta bizimodu bat eztabaidatzen ari den komunitate politiko bat, eta ez Espainian bakarrik. Neoliberalismoa sendotzearen edo, haustura demokratikotik eta behetik, gizarte eta ekonomia alternatiba bat eratzearen arteko hautua da gakoa. Ogi, lana, aterpea eta duintasuna eskatzen dituen gizarte honen erraietatik, berretsi egiten dugu Europako herrien historiarako erabakigarria den une politiko honetan epe luzeko ikuspegia izateko deialdia.

Bestalde, 2015eko udal hauteskundeak hautagaitza bateratuak probatzeko eszenategia izan dira. Jatorri konplexua eta anitza eduki arren, egia da hautagaitza horietako askok emaitza onak izan zituztela Euskadin. Emaitzazko aniztasuna oso garrantzitsua izan zen, baita kultura politikoaren nahasketa ere. Herritar ezkertiarrei ilusioa pizteko gai izan ziren eta, aldi berean, erakutsi zuten alderdi biko sistemari

hauteskundeetan tarte bat jan zekiokela. Hala ere, inongo kasutan ere ez genuen lortu bakarrik gobernatzeko besteko gehiengorik.

Hala ere, batasun esperientziek gurea bezalako gizarte eta ekonomia testuinguruan ahalmena dutela utzi dute agerian, erakarmen izugarria piztu baitute herritarren artean, eta mahai gainean haustura demokratikoko posizio argiak agerian utzi. Horrelako formulen aldeko gure apustua garbia da, eta lan egingo dugu, gainera, beste alderdi politikoei erakusteko premia dugula estatu osorako apustu estrategiko bateratua egiteko, eta ez taktikoa eta lurraldeetan desorekatua.

Defendatzen dugu bateratzea abegirako espazioa dela, identifikatuta sentitzen diren pertsona guztiek beren burua eroso ikusiko duten tokia, hala banaka, nola taldean. Bertan, pertsona eta erakunde bakoitzak aitortuta ikusiko du bere ekarpena, bere tamaina edozein dela ere. Bertan, pertsona eta erakunde bakoitza identifikatuta sentituko da politika zein antolamendu arloko erabakietan. Bateratze horiek bi elementu garrantzitsuren inguruan eraiki behar dira: federaltasuna, eta erradikaltasun demokratikoa. Federaltasunak balio behar digu estatuko askotariko lurraldeetan herri batasunerako espazioak eraikitzeo eta, hartara, politika, antolamendu eta hauteskundeetarako proposamen baten koherentzia bermatzeko. Bukatzeko, erabakien eta aukeraketen mekanismo zehatzen erradikaltasun demokratikoa izan behar da erabilitako metodologia espazioaren eraikuntza plurala bermatzeko eta politika eta gizarte ekintza bateratuak duen balio politikoa segurtatzeko.

Testu honetako azterketarekin eta IUko militantziako urteetan onartutako agiriekin bat etorriz, jarraitu egin behar dugu hauteskundeetarako lankidetzaren espazioak eraikitzen, gure egitasmo politikoaren identitatea eta programarako espazio bateratu nahikoa aitortzeko baldintzak dauden bitartean. IUz haraindi doan politika eta gizarteko mugimendu politiko bat eraikitzen dugun bitartean, beste indar eta mugimenduekin gure lankidetzaren sendotu behar dugu.

Egun ezinezkoa da zerotik abiatzen den ezker alternatibo, antikapitalista, errepublikazale, antipatriarkala eta ekologistako proposamen bat. Ezker Anitza - IU militantzia politikoko espazio bakartzat gure alderdia duten kargu publiko eta pertsonen errealtate bat da. Aldi berean, ordea, gure erronka da beste askorekin batera gizarte eta politikako batasun espazio bat eraikitzea, Bloke Sozial eta Politikoko aliantza alternatiboak gorpuztuz, eta programa bateratu bat. Herri batasun zabalena eratzeko bateratze estrategia bat garatzeko unea dugu, argi eta garbi haustura helburua aldean hartuta eta programan oinarrituta.



**EUSKADI
BERRIAERAIKIZ**